




URRESTILLAKO SOZIALISTA

Ramon Etxezarreta PSE-EEko zinegotziaren gogoetak (22-26)



irratxo

Jostailuak - Paperdenda

Tel. 15 05 30

Sanjuandei auzuen



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxe: 943 15 05 10



**DUEN ORDUTEGIAGATIK
DITUEN ZENTROENGATIK
ESKAINTZEN DEN ARRETA BEREZIAGATIK
DUEN KALITATEAGATIK**

AZKOITIA
Ibai ondo 16

AZPEITIA
Pablo VI. 20 behe

Elkarrizketa.
Maria Jesus
Salegi,
'Basajaun'-en
ama (12-13)

Presoak
herriratzeko
eguna
maiatzaren
25ean (18-19)



Hiru gazte,
'diapoesia'
ikusteko eta
entzuteko
saioan (32-33)



Elkarrizketa.
Nekane
Zelaia
(42)

uztarria

Berriz ere urtea aurreratuxe dela onartuko dira
2002. urteko udal aurrekontuak. 20,7 milioi
euroko aurrekontua du (3.454 milioi pezeta)

UDALEKO AURREKONTUAK OHIKO BIDETIK



Gaur (maiatzak 2) onartuko dira aurtengo udal aurrekontuak. / UZTARRIA

Nerea Uranga

Aurten ere, azken urteotan bezalaxe, urtearen lehen hilabeteak aurrera egin eta gero onartuko dira udal aurrekontuak. Orain bi urte martxoaren 29an onartu ziren, iaz martxoaren 27an, eta aurten ezusterik ezean gaur (maiatzaren 2an). EAJko eta Eako zinegotzien onespenez erabakiko da eta Batasunekoek ezezko botoa emango dute.

Eduki eta diru aldetik ere aurreko aurrekontuen antzekoa izango da aurtengoa. Hain zuzen, aurtengo udal aurrekontu propioa 16,9 milioi eurokoa da (2.822 milioi pezeta) eta aurrekontu osoa —Azpeitia Lantzen S.A., Lapatx zabortegia S.A., Euska-ra Patronatoa, Kirol Patronatoa eta 4R Fundazioko aurrekontuak gehituta— 20,7 milioi eurokoa da (3.454 milioi pezeta). Udalean erabakiko den aurrekontua udaleko EAJko eta Eako ordezkariak adostutakoa izango da.

Udaleko Batasuneko ordezkariak euren udal aurrekontuetarako proposamen bat aurkeztu zieten beste bi alderdiei, baina honek ez du aurrera egin. "Guk Udalean erabaki diren aurrekontuetan ez dugu ezertan parte hartu. Geuk alorrez alor propo-"

UDALA	2001. URTEA		2002. URTEA	
Udalaren aurrekontu propioa	14.397.945 euro	(2.395.616.501 pezeta)	16.963.454 euro	(2.822.481.414 pezeta)
Udalaren aurrekontu osoa	16.672.075 euro	(2.774.000.000 pezeta)	20.763.986 euro	(3.454.836.605 pezeta)

SAILAK EDO ERAKUNDEAK	2001. URTEA		2002. URTEA	
Ogasuna eta ondarea	831.142 euro	(138.290.381 pezeta)	1.462.713 euro	(243.374.987 pezeta)
Hirigintza	4.511.696 euro	(750.683.072 pezeta)	5.791.446 euro	(963.615.592 pezeta)
Hezkuntza	274.306 euro	(45.640.669 pezeta)	307.654 euro	(51.189.270 pezeta)
Kultura	466.886 euro	(77.683.290 pezeta)	498.093 euro	(82.875.758 pezeta)
Kirolak	447.526 euro	(74.462.103 pezeta)	557.444 euro	(92.750.934 pezeta)
Gizarte Zerbitzuak	830.275 euro	(138.146.177 pezeta)	831.889 euro	(138.414.630 pezeta)
Baserriak	288.810 euro	(48.054.000 pezeta)	304.419 euro	(50.651.060 pezeta)
Festak	408.735 euro	(68.007.778 pezeta)	444.271 euro	(73.920.574 pezeta)
Zerbitzu Orokorrak	4.957.225 euro	(824.812.790 pezeta)	5.335.838 euro	(887.808.665 pezeta)
Goi-karguak	783.749 euro	(130.404.836 pezeta)	807.327 euro	(134.327.939 pezeta)
Merkataritza eta turismoa	143.955 euro	(23.952.092 pezeta)	138.660 euro	(23.071.043 pezeta)
Gazteria	168.394 euro	(28.018.407 pezeta)	216.406 euro	(36.006.929 pezeta)
Ingurugiroa	285.246 euro	(47.460.906 pezeta)	267.294 euro	(44.474.033 pezeta)
Udal Kirol Patronatoa	467.990 euro	(77.866.951 pezeta)	578.342 euro	(96.228.004 pezeta)
Euskara Patronatoa	414.288 euro	(68.931.745 pezeta)	429.317 euro	(71.432.257 pezeta)
Azpeitia Lantzen S.A.	1.310.206 euro	(218.000.000 pezeta)	2.874.641 euro	(478.300.017 pezeta)
Lapatx Zaborteia S.A.	661.113 euro	(110.000.000 pezeta)	1.262.125 euro	(209.999.930 pezeta)
4R Fundazioa	60.101 euro	(10.000.000 pezeta)	60.101 euro	(9.999.965 pezeta)

» samen batzuk egin ditugu, baina kuantifikatu gabe. Proposamen horiek teknikoek balora ditzatela eskatu dugu, besteen aurrekontuak egin ohi diren bezalaxe”, esan dute Batasuneko zinegotziek.

URTEROKOAK. Batasuneko proposamen batzuk urterokoak dira, “baina urtero erantzunik ez dutenak”: 32 orduko lan astea udaletxean, goi karguen soldata jaistea eta lan egutegia Euskal Herriko nazio ikuspegi bati egokitzea. “Lan astea murriztu eta ordu extrak kenduta, bederatzi lan postu sortuko lirateke”, diote Barne Batzordeari dagokion proposamenean. Euskara alorrean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia “euskalgintza”-ren eta gizarte eragileen parte hartze zuzena eta adostua eta Aholku Batzordearen eraketa zabala” proposatu dute, baita Euskara Patronatoa euskalgintzari zabaltzea ere. Gizarte Zerbitzuetan proposamen ugari urteetan eskatzen ari diren etarikoak dira; horietako bat: “Soldata soziala, lanbide arteko gutxienezkoa ziurtatzea, bai pentsiodunei eta bai langabetuei ere”. Kultura arloan berriz, besteak beste, Kulturako Aholku Batzorde bat osatzea proposatu dute Batasunekoek.



Azpeitiko saihesbidean bi errotonda egitea aurreikusiko da. / N. ARANBURU



Basazabalerako 300 mila euro jarriko dira. / NEREA ARANBURU

Ohiko udalbatzar bakarra azken urtean

• 2001eko ekainaz geroztik, ia urtebetean, ohiko udalbatza bakarra egin da Azpeitiko udaletxean. Hilero-hilero egin izan dira udalbatzak, baina ia denak ezohikoak. Ezohikoak egin diren batzuetan eguerdian egin dira, eta ez, bestela bezala, iluntzetan. Batasuneko udal ordezkariak Jose Maria Bastida alkateari kritika egin diote azkenaldiko udalbatzen dinamikarekin ados ez daudelako. “Ezohiko batzarretan ezin da gai desberdinez hitz egin eta eztabaidatu, bertan esandako iritziak ez baitira gero aktan jasotzen. Kontu honetan, legeak dioenez, hiru hilabetean behin ohiko udalbatza bat egin beharra dago. Gero batzuk nahi duten interpretazioa eman nahi diote lege honi”. Dena den, alkateak Batasunekoiei esan die, hauek diotenez, maiztzean ohiko batzar baterako deia egingo duela.

Aurtengo gai zehatz batzuk

Udalak aurtengo ere baditu proiektu berriak: Urrestillako ur hornidura, Loiolabideko eta Sanjuandegiko bidegurutzeetan errotondak, eta zenbait auzotako urbanizazio lanak. Iaz hasi ziren beste proiektu batzuek jarraipena izango dute; hala nola, igerileku irekiak. Eta Basazabaleko Kultur Etxearen proiekturako, iaz ez bezala, 300 mila euro jarriko dira.

● **URRESTILLAN UR HORNIDURA.** Urrestillan ur hornidura berria egin nahi da; hau da, Azpeitiko herrigunean edaten den ur bera bideratuko da. Horretarako eta ur hornidura orokorrerako, aurrekontuan 282 mila euro (47 milioi pezeta) bideratzea erabakiko da. Iaz, 30 mila euro (bost milioi pezeta) izan ziren.

● **BIDEGURUTZEAK.** Loiolabideko bidegurutzean eta Sanjuandegiko bidegurutzean bi errotonda egingo dira. Berez lan hau Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, baina luze jotzen ari dela-eta lan honen ardura Udalak hartzea erabakiko du: Loiolabideko bidegurutzerako 360 mila euro (60 milioi pezeta) eta Sanjuandegikorako 601 mila euro (100 milioi pezeta).

● **URBANIZAZIO LANAK.** Foru Ibilbidea 48 mila euro (8 milioi pezeta), Jose Artetxe kalea 60 mila euro (10 milioi pezeta), Harzubiakalea 240 mila euro (40 milioi pezeta), Sanjuandegi auzoa 210 mila euro (35 milioi pezeta) eta beste urbanizazio lan batzuk 180 mila euro (30 milioi pezeta).

● **SANJUANDEGIN LUDOTEKA ETA ZAHARRAREN EGOITZA.** Sanjuandegiko jubilatuen egoitzarako 240 milioi (40 milioi pezeta) aurreikustea erabakiko da eta Sanjuandegin ludoteka berri bat egiteko, berriz, 180 mila euro (30 milioi pezeta).

● **BASAZABAL.** 300 mila euro (50 milioi pezeta) jarriko dira. Iaz, 30 mila euro (bost milioi pezeta) jarri zituen Udalak kultur etxearen proiektua egiteko.

● **KIROL INSTALAKUNTZAK.** Futbol zelaia 54 mila euro (9 milioi pezeta), igerileku irekiko berdegunea zabaltzeko 150 mila euro (25 milioi pezeta), igerileku estalia 72 mila euro (12 milioi pezeta), Izarraitz pilotalekuan igogailua jarri eta goi-errendimenduko kirolarientzako lokal bat egokitzeko 276 mila euro (46 milioi pezeta) eta Xoxoteko aterbea berritzeko, berriz, 60 mila euro (10 milioi pezeta) bideratuko dira Kirol Batzordetik.

● **EUSKARA.** Kultura Batzordetik euskarari 163 mila euro (27 milioi pezeta) bidera-

tuko zaizkio. Iaz, 124 mila euro (20 milioi pezeta) izan ziren.

● **KOMUNIKABIDEAK.** Kultura Batzordetik Kaito Telebistari eta Uztarriari 30 mila euro (bost milioi pezeta) aurreikusiko zaizkie. Iaz, 36 mila euro (sei milioi pezeta) ziren. Uztarriak aldizkarirako hiru milioi pezeta eskatu ditu, weberako milioi bat pezeta. *Azpeitian Zer?* udal aldizkariak 63 mila euro (10,6 milioi pezeta) jasoko ditu Goi-karguak Batzordetik.

● **GARAPEN KOMUNITARIOA.** Garapen komunitarioaren barne emakumeei buruzko plan bat jarriko da abian. Honetarako, 18 mila euro (hiru milioi pezeta) jartzea erabakiko da, eta diru laguntzetarako, berriz, 58 mila euro (9 milioi pezeta).

● **FESTETAKO PROGRAMA.** 30 mila euro (bost milioi pezeta) jarriko dira; iaz 24 mila euro (lau milioi pezeta) ziren.

● **ARGITALPENAK.** Goi-karguak Batzordetik argitalpenetara 66 mila euro (11 milioi pezeta) bideratzea aurreikusiko da iaz bezalaxe.

● **INGURUMEN AZTERKETAK.** Ingurumen Batzordetik azterketak egiteko 24 mila euro (lau milioi pezeta). Iaz 72 mila euro (12 milioi pezeta). ●

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g
Urretxu 20700
Tel./Faxa: 943-721413/721403
jmiparragirre@edunet.es

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan

TITULAZIOA

► Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

IRAUPENA

► 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

LANBIDE ETORKIZUNAK

► Ospitaleko erizain laguntzailea
► Lehen artapenetako laguntzailea
► Kontsulta pribatueta
► Zaharren egoitzetan
► Hortz-kliniketan laguntzailea
► Gaixoen zaintza

IZENA EMATEA

► Maiatzaren 1etik 24a arte

amuko zubitik Mikel Arregi



AZPEITIAZ GAZTEAK ETA AISIA

Gaur egun, Azpeitiko gazteek ez daukate aisialdia euren erara antolatzeke gunerik. Gazte baten sozializazioan, oro har, garrantzia handia duten hiru eragile edo agente daude:

Lehenengo bietan, eskolan eta familian, gazteek gizartean nola portatu behar duten ikasten dute, betiere aginte baten menpe. Hirugarren agentea lagunartea edo ingurua da, sozializazio agente bezala ikaragarritzeko garrantzia duena. Bere ezaugarri garrantzitsuek horizontaltasuna da, autoritate eza; gazteek euren kasa ikasten dituzte portaera arauak.

Nire ustez, gazteek euren bizitza antolatzen ikasteko modu egokiena euren aisialdia *auto-gestionatzea* da. Familian eta eskolan nahikoa erakusten diete gazteei ona eta txarra bereizten. Handik kanpo, gazteak berak ikasi behar du egokiena dena aukeratzen; berak ikusi behar du gizarteari zerbaite eskaini nahi al dion, eta hori nola egin dezakeen.

Ondorioz, Azpeitian gazte-gune baten pre-

mia ikusten dut. Badago gazte-leku bat, baina bertan, gazteak ez dira euren aisialdiaren protagonista nagusi. Gazte-lekuak ez du, familieren eta eskolaren funtzioez gain, askoz gehiago aportatzen. Behin adin batetik aurrera, beharrezkoa da gazteek euren erara antolatu-koduten gune bat.

Ekitaldiak, ikastaroak antolatuko dituzten gazteak behar ditugu; kezkak, arazoak, konponbideak planteatuko dituzten gazteak. Horrek, ondorioz, gizarte aberats bat izan dezagun ahalbidetuko du. Horrek, gazteen aisialdirako alternatiba bakarra parranda izan ez dadin lagunduko du —guraso askoren kezka nagusiari erantzunez—.

Baina tristen zera da: behar hori erantzun beharko lioketenek, behar hori bera aintzat hartu beharrean, gezurretan oinarritutako epaiketetara jotzen dutela. Eta, nola ez, guztia estaltzeko diru mordoxka gastatu dute batere zentzurik gabeko gauzak esaten diren argitalpen batetan. Edo akaso Nuarbeko pantanoa gazte-gunea da? Kezkagarria, benetan.

azketako ude Kepa Susperregi



CHICAGOTAR HAREN GALDERA HURA

Duela urte pare bat, uda garaian iritsi zen Parrokiara Chicagoko lagun koadrila bat. Jesulagundiko kide baten gidaritzapean etorzen dira Loiola aldera, bi urtetik behin, San Inazioaren jaioterria ezagutu eta bisitatzen.

Parrokia bisitatu ondoren, honoko galdera hau egin zidan haietako batek: "Aizu, duela lau urte izan nintzen hemen. Ekonomia ikuspegitik gorantz egin al duzue?". Nik, erantzun aurretik berak zer ikusi zuen galdetu nion, eta honela erantzun zidan: "Egindako etxe berriek, ikusten diren autoek..., nire atentzioa bereganatu dute".

Pasadizo hau gogoratu dut aurreko hilabete- an eskuetan izan nuen gazteei buruzko azterketa soziologiko batean irakurritako batzuk kontutan hartzean. Honelaxe zioen: "1990. hamarkadako gazteek, 1980. hamarkadakoek

bezala, ongizate ekonomikoaren babesa eza-gutu dute. Normala da, beraz, gazteek bere ongizate pertsonala baloratzea. Gurasoek eskaini dieten kontsumo eta bizi-kalitate mailan bizitzen ohitu dira eta. Baina, hor dago koska: Nork ziurtatzen du etorkizunean gazte-en bizi maila hau, beren lan etorkizuna ziurtatzen ez bada?".

Garapen ekonomiko handia ezagutzen du gure inguruak, halaxe ikusi izan dugu geuk ere azkeneko urteotan. Horixe bera aipatzen dute egunkarietan agertu izan diren hainbat eta hainbat berrik. Baina lan munduan sartze-ko zailtasunak (Euskal Herrian bertan, 25-29 urte dituzten gazteen artean seitek batek ez omen du lan posturik izan), eta zenbait lan kontratuen baldintzek ez dute errazten etorki-zunari aurre egitea.

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

ONDORIOA ETA MUINA

Imajinatu Eusko Legebiltzarra gose greban Madrili planto egiteko, Madril-ek erabaki politiko bat ez duelako errespetatzen", zioen Carlos Garaikoetxe-ak orain dela sei urte elkar-rrizketa batean. Harrezkero Gasteizko legebiltzar han- kamotz horrek onartu izan du presoak Euskal Herrira ekartzeko proposamena, baina Madril-ek jaramonik ez. Eta *Eusko Legebiltzar-rrak* gose grebarik ez.

Herriak bai. Azpeitiarrak, adibidez; lehengo hilean, esaterako, hainbat gaztek. Eta hilaren 25ean *Presoak herrira* eskatuko da berrir.

Ez da etsi behar, baina ez da ahaztu behar preso- en arazo larri hori gatazka poli- tikoaren ondorioa dela, ez muina. Euskara, lurralde- tasuna, hezkuntza, kultura... dira muin. Horregatik bo- rrokatzen dira presoak. Her- rria, ordea, preso- en preso da maiz. Eta ez da komeni.

bota bertsue

Jokin Uranga

MAMU BAT

Egiaren aurrean gezurrak ordago alkatea portatu da oso pikaro orain epaitegitik behar dugu igaro nahiz hortik gauza onik ezin den itxaro lokalak merezi du hori ta gehiago

Kukurruku egin du Bastida oilarrak gainera ditu oso intentzio txarrak baina guk ere bildu ditugu indarrak zer eginik ez duela badaki herriarrak mamu askoren aurka fantasma bakarrak



ESKOLA NAZIONALA.

Ekimen polita eta aberatsa apirilaren 21ean Euskal Eskola Nazionala aldarrikatuz Hau da! Kultur Elkarteak antolatu zuena herrian. Kontu honetan egiteko asko baitago oraindik.



TURISTAK.

Herrira datozen turistak, despistatuta dabilta ea zerbait ikusteko modukorik den galdezka. Honek, turismo bulegoaren edo bisitarien-tzako gidak leku egokietan jartzeko beharra adierazten du.



BIDEGURUTZEA.

Jose de Artetxe, Sanjuandegi eta Loiolabideko biddegurutzean, behin-behineko errotonda bat jarrita dago. Noiz jarriko da behar den bezala? Nori dagokio lan hau, Udalariei edo Foru Aldundiari?

gutunak

'El Diario Vasco' dela eta

Gai honen inguruan sortu den eztabaidari zerbait gehiago eman nahian, eta aurreko iritzi batzuei punta atera nahian, honatx zehaztasun batzuk:

- ABCren linea editoriala segitzen du *El Diario Vasco*-k, baina askoz era disimulatuagoan. Enpresa berekoak dira, eta bien azken helburua *España, una, grande y libre* da. Are gehiago: *El Diario Vasco* oso egunkari erreakzionarioa iruditzen zait: dela abertzaleen kontra, dela euskaltzaleen kontra, ekologisten kontra, homosexualen kontra...

- *El Diario Vasco* erosten duenak *El Diario Vasco* bakarrik erosten du, normalean. Tele 5 edo Antena 3 ikusten duenak ez du Tele 5 edo Antena 3 bakarrik ikusten, normalean. Bestalde, inork ez du idatzi *El Diario Vasco* irakurri behar ez denik. Egunkari abertzaleak erosteko arrazoiak ematen ziren; edo, nahi bada, *El Diario Vasco* ez erosteko arrazoiak.

- Kontua ez da egunkari bata edo bestea irakurtzeagatik euskaldunago sentitzen garen edo ez. Kontua da, konturatu gabe, eta denborarekin, egunkari bata edo bestea irakurtzeak ere (ez horrek bakarrik, baina horrek ere bai, eta salbuespenak salbuespen) egiten gaituela (ez)euskaltzaleago, (ez)abertzaleago, (ez)konformistago, (ez)koherenteago, (ez)konszienteago, (ez)solidarioago.

Iban Arregi

Teknologia berriak, hizkuntza txikien alde?

Apirilaren 16tik 20ra bitartean hizkuntza politikari buruzko munduko biltzarra izan da Barzelonan, Linguapax institutuak antolatuta. Programaren barruan, lantegi bat izan da teknologia berriek demografia urriko hizkuntzetan duen eragina az-

tertze. Lantegi horretan parte izan nintzenek, kronika labur bat dator hurrengo lerrootan.

Teknologia berrien eraginez, ingelesaren aginte oroahaldunak beste hizkuntza *handiak* mendean hartzeko boterea baldin badu, hizkuntza *txikiak* oraindik menderatuago geldituko dira, hizkuntza handiekiko? Ala, teknologia berrion bitartez hizkuntza txikiek badute lehen baino aukera errazagorik hizkuntza eta kultur baliabide zoli eta bizkorak sortzeko? Horra, laburki, antolatzaileek lantegi horren hastapenean ezarri zигuten galdera.

Halako biltzar handietan, munduko bazter guztietatik etorririko jendea biltzen delarik, denetarik pixka bat izan ohi da. Beraz, labur beharrez, bazter utziko ditut euskaldunon egoe-ratik urrun diren kontuak.

Lantegiaren ondorioetatik hasiko naiz:

- Teknologia berriak erraz eta merke erabil ditzakete, inoren mendekotasunik gabe, hizkuntza komunitate txikiek.

- Aski da trebetasun apur bat Interneteko komunitatearen el-

kar eragintza norberaren alde erabiltzeko, dela software librearen bidez, dela antzeko egoeraren diren beste hizkuntza komunitateek egindako lanaren bidez.

- Bide tradizionaletan zail eta garesti dena, bide elektronikoan erraz eta merke(ago) izan daiteke: horra, adibidez, liburu edo aldizkarien edizio elektronikoa.

Nire ponentzian, orain arte Eusko Jaurlaritzaren eraginez egin izan diren software komertzialen (hori da, Microsoften sistema eragile eta programen) itzulpen edo egokitzapenen ondorioak aztertu nituen. Nire ustez, bide horretatik ez dugu deus lortuko, besteren esku dagoen merkatuaren atzetik (berandu) ibili eta dirua erruz xahutzea baizik. Horren ordez, kode irekiko softwarearen bidea hautatu beharra azpimarratu nuen, baita erakutsi ere orain arte bide horretan landu diren proiektu onak (*Sustatu*, edo Azpeitiko *Uztarria.com*).

Gotzon Egia (Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Teknikaria)

akullue



Leire Ostolaza

IBAI
BAZTERRETA
KOA
ZIKINKERIA

Heldu da udaberria eta giro ederrak berak gonbidatzen gaitu ingururera begiratu eta naturaz gozatzera. Arrantza gazte ugari ikus dezakegu ibai bazterretan eta ziurrenik haiek izango dira zerrikeria aurrea ikusten dutenak.

Azkeneko euriak aprobeztatuz Ibai Ederren zaborra hustu duenik bada, eta horren lekuko gara guztiok, nahiz eta ezer egiten has-teko adina ez zaigun axola.

Joan den hileko asteazken batean, apirilaren 17an, neure etxeko leihotik ikusi ahal izan nituen goitik behera zetozen egur txapa zatiak. Ibaiaren bazterretan itsatsirik gelditzen dira eta bertan dira uraren maila berriro hazten den arte. Gainera, olio edo gasoilak ere ikusi ohi ditugu sarritan ur gainean, guztiok ahazten baitugu arraska zulotik behera botatzen dena ibaira joaten dela. Depuradoraren ize-nean zenbat gaitz harrapatzen ote dute dauden amuarrain apurrek, eta haiek bezalatsu daukagu guk arrisku hori, arnasten dugunaz konturatzen bagara.

Gure etxeetako leiho eta balkoiak garbitu orduko, hauts ilun eta astun batek estaltzen ditu, eta nork daki ez ote dituen gure erraiak erremediorik gabe zikinduko.

Hau da zikinkeria!

inkestie

Irakurtzeko zaletasunik ba
al duzu? Zein da azkena
irakurritako liburua?

Ane Lizaso

(ikaslea)

“Irakurtzea gustatzen zait, baina denbora falta zait. Azkena irakurri dudana liburua *El Paciente inglés* da. Normalea liburuak erosi egiten ditut”.

Inazio Olazabal

(langilea)

“Ez dut irakurtzeko zaletasunik handirik. Azkena Lazkao Txikiri buruzko liburua irakurri nuen. Eta normalean gaztelerez irakurtzeko ohitura dut. Liburuak behar direnean erosi egiten ditut”.

zer diyo?

BESTEAREN LEKUAN

Bake Konferentzia aurrera doa. PSE-EE-ren martxoko ezohiko kongresua dela eta, ekainaren amaiera aldera arte luzatu da, gainera, eta horrek proiektu osoa sendotzea eskatu du. Orain artekoaren balantze positiboak aurrera jarraitzeko agintzen digu.

Ekimen hau osatzen duten lau proiektuetan (hitza, folioa, liburua eta dossiera), bada eztabaidak aurrera eramatean praktikan jarri nahi izan den metodologia bat. Bai alderdien arteko elkarrizketetan, bai gero liburua osatuko duten eztabaida publikoetan, bai herri eta auzoetako elkarteetako talde bileretan, eta baita banaka nahiz taldean erantzuteko prestatutako galdekizuna erantzutean ere. Metodologia honen ezaugarria zera da: bestearen lekuan jartzea eskatzen digula.

Akordioa posible dela uste eta horretarako elkarrizketa eskatzen dugunok, zer diogu?

Balioko duen adostasunik badago, ezberdinen artekoa izan beharko du, eta, gainera, aurkari politikoaren artekoa, eta baita (ustez) etsaien artekoa ere. Baina agian, horrek esan nahi duena guztiz barneratzea ez da horren erraza.

Baliteke horretan laguntzea bestearen tokian jartzeak, euren lekuan, etsaiaren lekuan jartzeak. Taldekide batek zioen bezala, eguneroko elkarbizitzan beti da lagungarria ariketa hau, errealitatea hobeto ezagutzeko tresna bat da. Esan bezala, teknika hau erabili da lehen aipatutako elkarrizketa eta eztabaidetan.

Zenbat aldiz entzun (eta esan) ote dugu denok daukagula arrazoiaren zati bat? Lasai aitortzeko moduko baieztapena dirudi horrek. Benetan sines-ten badugu, ordea, zerbait gehiago ere eskatzen digu horrek. Non ote dago bestearen arrazoa?

Geu ere saia gaitzek bere bila. Hona hemen

pare bat proposamen lan horretan lagun gaitzake-tenak:

- Interesgarriena proposatu. Zure pentsakeratik urrunen dauden alderdi politikoetan pentsatu. Egiten edo esaten dutenaren artetik, positiboa eta interesgarria iruditzen zaizun zerbait azpimarratu.

- Jar zaitez euren tokian. Berriro ere urrunen sentitzen dituzun alderdien lekuan jarri. Kontuan hartu euren errealitate eta egoera. Zer da zure ustez alderdi hauek esan dezaketena egungo egoera hobetzeko, beraien ideia eta printzipioak baztertu beharrik izan gabe?

“Zertarako ordea?”, esango du norbaitek. Zentzurik ez duela irudituko zaio zenbaiti. Erraza ez dela behintzat esan dezakegu erantzuten saiatu garenok. Bestearen buruan sartzeari, bere argudio eta arrazoiak ulertzea... Nahi izanez gero, eztabaida batean bestearen posizioak eta arrazoiak erabiltzen eta defenditzen ere jardun gintezke, nahiz eta ez ados egon, noski.

Ezinezkoa ote da ordea? Beste muturreko horrek arrazoiaren zati bat eduki? Bai zera! Kontuan izan behar da denok garela gu eta besteak, aldi berean (norentzako denaren arabera), eta nork ez du uste norberak baduela arrazoirik?

Kontua ez da besteari arrazoa ematen hastea. Neure printzipio, helburu eta proiektuei uko egitea gutxiago. Baina adostasun batera iritsi behar badugu, norbaitzuk noizbait aurkitu beharko dute gutxieneko akordioa; bertan nire arrazoiaren zati bat izango da, eta bestearen arrazoiaren zati bat ere bai.

Zer egin dezakegu horren alde gaudenok, alde egoteaz gain hori bultzatzeko?

Aitor Azpillaga (Elkarriko kidea)

Iker Zumeta
(ikaslea)

“Gutxi irakurtzen dut. Irakurri nuen azkeneko liburua ez naiz oroitzen zein zen. Irakurtzen dudanean, dena dela, gehienbat gaztelarazko liburuak irakurtzen ditut nik, eta normalean liburuak erosi egiten ditut”.

Leire Odriozola
(irakaslea)

“Oso irakurzalea naiz, asko gustatzen zait liburuak irakurtzea. Azkena irakurri dudana liburua Joseba Sarrionaindiaren *La-*

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTAK

1. GALDERA: Non egiten dituzu erosketak?

- Herrian: %32
- Hiriburuan: %61
- Zentro komertzialetan: %4
- Urola bailaran: %2
- Beste nonbaiten: %1

gun izoztua izan da. Liburuak bai gaztelaraz eta bai euskaraz, bietatik irakurtzen saiatzen naiz. Liburuak erosi egiten ditut, ez ditut liburutegitik hartzen”.

Ixasne Zabaleta
(ikaslea)



“Liburuak noizean behin irakurtzen ditut. Azkena irakurri dudana liburua *Harry Potter* izan da. Liburuak batzuetan liburutegitik maileguan hartzen ditut, eta beste batzuetan berri, lagunen artean elkar-trukatzen ditugu. Berdin zait euskarazko libu-

ru bat edota gaztelarazko liburu bat irakurri”.

Maitane Gurrutxaga
(ikaslea)



“Badut liburuak irakurtzeko zaletasuna. Azkena irakurri dudana liburua *Puck* izenekoak izan da. Amak liburutegian egiten du lana eta berak ekarri ohi dizkit liburuak irakurtzeko, maileguan hartuta. Normalean euskarazko eta gaztelarazko liburuak irakurtzen ditut, bietatik bana. Orain erdarazko liburu bat ari naiz irakurtzen”.

albistiei erantzunez

GAIA: Uztarrria Kultur Koordinadoraren webguneko ‘Albisteak erantzunez’ atal berrian, Euskal Eskola Nazionalaren inguruan jardun dute kide batzuk. Hona hemen gutun haietako batzuk:

Gogoetarako deia

Euskal Herrian behar dugun eskola nazionala ez da herriaren zati burges txiki bati zerbitzua emango dion enpresa pribatu elitista, herriaren behar politiko, sozial eta ekonomikoei aurre egingo dien pertsona euskaldun eta solidarioak heziko dituen erakunde publikoa baizik; horregatik, sistema kapitalistaren aurkako borrokan, ezinbestekoa da sozialismoari dagokion euskal eskola sortzea, euskal herritar guztiei irekia, beraien arraza, egoera sozioekonomikoa, edota jatorria edozein delarik ere. Beraz, herritar guztiei gogoetarako deia egiten diet, euskal eskola nazionalaren kontzeptua ez baita herritar gutxi batzuek diotena soilik, norberak gogoeta egin ondoren eraiki behar lukeena baizik.

Euskaldun gaztea

arren. Eta bukatzeko, umildade pixka bat gelditzen zaidak oraindik onartzeko Euskal Herriari dagokion eskola hori gauzatzen ez garela gaur hasi. Gure gurasoak gazte izan zirenean ere gai honetan konprometitu zirelako, gaur egun zorionez ez gaudek zerotik hasteko egoeran. Gure seme-alabek, hireek eta nireek, horixe bera esateko modua egin nahi diat, eta egin egiten diat beste askorekin batera. Hi hor nonbait topatzea espero eta desio diat.

Ikasle abertzalea

Euskaldun gazteari

Euskaldun gaztea izendatzen duk heure burua. Baina hire espresioak zaharrarena dirudi. Eta nire iduriz mamiari dagokionez zaharkitua gainera. Francoren garaian euskaldunon kontra zaudenak modu berdintsuak erabiltzen zizkiatean.

Nik ere Euskal Herri sozialista nahi diat eta kapritxoak janzen, jaten edo edaten gastatu beharrean ikastola aurrera ateratzeko gastatzea erabaki diat. Beraz, gogoeta egitetik aparte batzuek beste zerbait ere egiten diagu. eta garbi esateko, logikaz ikastolaren alde egon beharko luketen asko, nonbait gogoetan galduta zebiltzak, ez bait dizkiat batere konprometituta ikusi hezkuntzako ezertan.

Euskaldun zaharra

Eguneroko konpromisoa

Hik esandako horixe egiten ari naizen gaztea nauk. Bakarrik, gogoeta egitetik aparte gure gurasoekin batera eguneroko konpromisoarekin gauzatzen ari nauk. Eta horri erantsi gogoea beste batzuekin alderatzeko moduak topatzen ditudala, bai ikasleen artekoa, geure ikastolatik hasita, bai Ikasle Abertzaleen bitartez. Ikastolen artean ematen ari dena ere jarraitzen diat eta gure ikastolan ematen zaigun aukerarekin oso gustora nagok, beti hobetu daitekeen

“Balioko duen adostasunik badago, ezberdinen artekoa izan beharko du”

“Kontuan izan behar da denok garela gu eta besteak aldi berean”

“Adostasun batera iritsi behar badugu, norbaitzuk noizbait aurkitu beharko dute gutxieneako akordioa”

Aitor Azpillaga

hausnartzen

GAIA: 'Etxebitzak Azpeitian'. Etxebizitza eskubide izanik, bermatzen al da? Babes ofizialekorik behar al da? Etxebizitza hutsekin zer egin? Alokatzeko aukeraz zer?

Oharra: hurrengo aleetan ere eztabaida hau plazaratuko du Uztarriak; beraz, idatzi nahi duenak bidali artikulua aldizkariaren helbidera

ETXEBIZITZEN PROMOZIO PUBLIKOA BULTZATZEA HERRITARRON ESKU DAGO

Etxebizitza eskubide bat izanik, hezkuntza eta osasunarekin gertatzen den lez, instituzio eta erakundeen ardura da eskubide hori bermatzea. Baina Azpeitian, badirudi Udala ez dela jabetzen ardura hau berea dela; hau da, herritarron eskubide hau bermatu dadin bitartekoak jarri behar dituela (promozio publikoa bultzatu, pribatuari mugak jarri, eta abar).

Azken hamar urteotan Azpeitian promozio pribatuan egin diren etxebizitza kopuruari erreparatuz, gutxienez 169 etxebizitza sozial eraikita egon behar lukete 1994ko 17/94 Lurralde Antolaketa-ko Legearen arabera. Hala ere, Udalak muzin egin dio lege honi. Edo, hobeki esanda, legea atzean utzi dutenak promotore pribatuak izan dira, baina Udalak eraikitze politika honen aurrean begiak itxi eta mugarik ez jartzeaz gain, eurekin bat egin du, interes pertsonalak medio. Gezurra badirudi ere, Azpeitiko Udala izan da politika hau bermatu dadin erraztasunak eman eta bideak ireki dituen erakunde publikoa. Nola ulertzen da herriaren ordezkariak, herritarron beharren gainetik, interes pribatuak eta pertsonalak jartzea? Azken finean, noren ordezkariak dira?

Herritarren beharrez arduratu beharrean, promotore pribatuen interesetan egingo diren lurren kalifikazio aldaketek arduratzen dute Udala. Promotore pribatuek nekazal lurak erosten dituzte, bai baitakite Udalak, betiko moduan, interes pertsonalak tarteko, ahal dituen bitartekoak jarriko dituela lur hauek urbanizagarri bihurtzeko. Herritarroi zor zaigun eskubidea bermatzen lagundu beharrean, geure poltsikotik neurrigabeki aberasten ari diren promotoreei lurak merkeago erosten laguntzen die Udalak. Lurraren balioa, nekazal izatetik urbanizagarri izatera zeharo puzten baita.

Hala ere, azkenaldian badirudi Udalak Babes Ofizialeko Etxebizitzaren inguruko proiekturen bat darabilela eskuartean. Berrito ere, herriaren presioa izan da Udala mugituarazi duena. Baina ez digu balio etxebizitza hauek egingo direla dioen publizitate eta eskaparat hutsak. Etxebizitza hauek, zenbat, noiz eta nola egingo direnaren jarraipen bat ematea beharrezkotzak jotzen du Kale Gorrianeke.

Bestalde, ezin ahaztu Azpeitian 1.478 etxebizitza (%26) hutsik daudela; hau da, Sanjuandegi guztia hutsik egongo balitz bezala. Beraz, zertarako jarraitu eraikitzen, hainbeste etxe huts izanda herrian?

Kale Gorrianean iritziz, lurzoru berrietan eraikitzen jarraitu beharrean, etxe huts hauek betetzen joan behar dugu, berrerabilpen politika egoki baten baitan. Modu honetan, nagusiki herriko bi arazo ekidingo genituzke. Batetik; herri inguruan ditugun gune berdeak suntsitzeari utziko genioke, natura gehiago errespetatuz; eta bestetik, herritar guztiok ordaintzen ditugun urbanizazio gastu mordoak aurreztuko genituzke. Gaur egun, udaletxeko aurrekontuetako partida handi bat urbanizazio gastuetara zuzentzen da



eta Sanjuandegi osoa hutsik egotea balitz bezala dela esaten badugu, urtero alferrikako gastu asko aurreztuko genituzke.

Ondorioz, eta etxe hutsen kopuru handi bat alde zaharrean aurkitzen dela ikusirik, Kale Gorrianeke alde zaharraren bizi-berritzean jartzen ditu indarrak. Bertan posible baita arestian aipaturiko etxebizitza sozialen inguruko politika gauzatzea, berrerabilpen eta birgaitzean oinarrituz.

Azpeitiko alde zaharraren bizi-berritzearen inguruan, Zaharra-Berri auzo elkartearekin eta alde zaharreko merkatariekin ari gara elkarlanean. Hiru taldeok helburu desberdinak izan arren, gai honen inguruan dugun kezka –eta alternatibak sortzeko asmoak– bildu gintuen. Honen aurrean, Udalarik informazioa eskatu eta kezka azaltzeko bilerak bat eskatu genion. Baina, denbora bat pasa ondoren, Udalak merkatariek eta auzo elkartekoak bakarrik deitu zituen bilerara. Kale Gorrianeke kideok ez ginen gonbidatuak izan. Zer dela eta? Ez al dauka garbi Udalak gazteon kezka nagusienetako bat etxebizitzena dela? Berrito ere Azpeitiko gazteoi bizkarra eman digu Udalak, eta garbi azaldu hitzik gabeko elkarriketaren alde dagoela.

Kale Gorrianeke, lehenik eta behin, herritarron eskari eta beharren azterketa baten premia nabarmendu nahi du, eta, gazte ikuspuntutik, honokoa planteatzen du: Alde zaharraren biziberritze plan baten barruan, promozio publikoan, etxe hutsak berrerabili, birgaitze politika baten baitan, non alokairu sozialak bere tokia izango duen. Hau da, eskari eta beharren arabera, promozio publikoan beti ere, alokairu politika baten aldeko apustua egiten du Kale Gorrianeke.

Unai Larrañaga (Kale Gorrian-eko kidea)

“Lurzoru berrietan eraikitzen jarraitu beharrean, etxe hutsak betetzen joan behar da, berrerabilpen politika egoki baten baitan”

Unai Larrañaga

“Azpeitian eraiki diren etxebizitza berrien ezaugarriak aldatuz doaz piskanaka. Orain bi urte, apartamentuak egiteko joera handiagoa zegoen”

Maider Agirre

ETXEBIZITZEN ESKAINTZAK BEHERA EGIN DU

Etxebizitzaren merkatuan, eskaintza eta eskaria ez datoz bat une hauetan Azpeitian: eskaria handiagoa da eskaintza baino. Hau da, jende asko dabil etxebizitzaren bila, eta gutxi dago saltzeko. Azkenaldian Azpeitian etxebizitza asko eraiki da, baina hauetako gehienak salduta daude. Bigarren eskuko etxebizitzak ari dira pixkanaka-pixkanaka merkaturatzen, baina poliki. Etxebizitzaren merkatuan orain gutxi egon zen mugimendu hori ez dago momentu honetan. Guk uste genuen, etxebizitza berriak saltzen ziren heinean, bigarren eskukoak merkaturatuko zirela, baina ez da horrenbestean gertatu. Jendeak, lehengo etxebizitza hori saldu beharrean, mantendu egin du.

Etxebizitza erosi nahian dabiltzanak denetariko jendea dira: bikote gazteak –lehen etxebizitza erosi nahi dutenak–, edota 50 urte ingurukoak, etxez aldatu nahi dutenak.

Azpeitian eraiki diren etxebizitza berrien ezaugarriak ere aldatuz joan dira pixkanaka. Orain dela bi urte, apartamentuak egiteko joera handiagoa zegoen. Gaur egun, berriz, lau logelako etxeak egiten dira, berdeguneekin, garagearekin edota ekipamenduekin.

Eta famili bakarrentzako etxebizitza adosatuak eta txaletak egiteko joera ere igo egin da. Joera honek etxebizitzaren prezioek izan duten gorakadan zeresana dauka. Etxebizitza handiagoak direlako, ederragoak, ekipamenduekin, berdeguneekin etab. Duela bi urtetik etxebizitzaren prezioak igoaz joan dira; gaur egun esan dezakegu, goreneko prezio hori mantendu egiten dela. Azken finean, dena zirkulu bat da. Kontratistek etxeak eraiki eta prezio bat jartzen dute; jendea erosteko prest dago eta saldu egiten dira; hauek, lehen etxea bigarren bati saltzen diote, berria ordaindu behar dutelako eta prezio altuan saltzen dira.

Azpeitian, etxea erostekorakoan, bezeroak lekuari berari ere asko begiratzen dio. Dena den, esan beharra dago, Azpeitian ez dagoela leku txar bezala definitu dezakegun zonalderik. Azpeitiarren artean leku estimatuena Loiolabide ingurua da, baina Olazko Amaren plazarxoak eta Hartzubiak eskari handia dute.

Bestalde, etxe bila datozen bezeroak, gehienak, etxea erosteko asmotan datoz. Ez dago etxea alokatzeko ohiturarik. Etxea alokatzeko eskaera egiten duen gehiengoak kanpoko edota atzerri-tarra da. Gainera, alokairuak garestiak dira, 50.000-55.000 pezetatik hasi eta 75.000 pezeta artekoak hain zuzen.

Maider Agirre (Pildain Inmobiliaria)



udaberri honetan eskuratu zure bezero txartela

%10eko deskontua

ATERA ETEKINA ZURE EROSKETEI!

agirre oparidenda - erdikale, 1 • aintzin - santiago, 8 • astigarraga - erdikale, 21
disdira - elizkale, 1 • egaña - santiago, 16 • jone eta markar - enparan
jostaldi - erdikale, 15 • kimetz - santiago, 6 • martina isasti - erdikale, 10
oinkari - erdikale, 5 • romaes - elizkale, 11 • trapos decoración - santiago, 5



Azpeitiko alde-zaharreko Merkatarien Elkarte • eliz kalea • 943-151786

Maria Jesus Salegi

“Josu torturatuta hil zuten eta salatu beharra dugu”



Itziarren hilda agertu zen Josu Zabala nafarraren ama da Maria Jesus Salegi azpeitiarra. Orain Estrasburgera jo dute, kasua salatzer

Azpeitiarra da Maria Jesus Salegi, Kortatxo-koa. Ezkondu zenetik — orain 35 urte—, Iruñean bizi da. Semea, Josu Zabala *Basajaun* etakidea, bihotzean tiroa zuela azaldu zen Itziarren, mendian, 1997ko martxoaren 27an. Maria Jesus Aste Santuan Estrasburgen izan da semearen kasua salatze-ko, senitartekoekin eta lagunekin batera. Handik bueltan egon da Uztaria emakume azpeitiar honekin, Iruñean bertan.

● **Espainiako Auzitegi Konstituzionalak ez du Josu Zabala zure semearen kasua onartu. Espainiako Justiziak eskaintzen dituen aukera guztiak agortu ondoren, Estrasburgera jo duzue.**

Hasieran Eibarko Epaitegiari zegokion kasua, eta han artxibatu egin ziguten. Gero, Gipuzkoako Entzutegi Probintzialera jo genuen, eta han ere Josuk bere buruaz beste egin zuela ondorioztatu eta artxibatu egin zuten kasua. Gero Auzitegi Konstituzionalak ez zigun kasua onartu, ez zeukan kasua argitzeko eta aztertze

● **Zer egin duzue Estrasburgen?**

Estrasburgora prentsaurrekoa eman eta kasua salatzer



“Auzitegi Konstituzionalak ez zeukan kasua argitzeko asmorik”

“Guk baditugu frogak, baina ez dizkigute onartzen”

“Ezintasuna nagusi dugu, baina, hala ere, gure ahalegina egingo dugu”

eta eman genituen hemendik, eta omenaldia egin genuen. Oso ondo irten zuen denak. Orain zain gaude, ea Estrasburgeko Giza Eskubideen Epaitegiak kasua aztertzea onartzen duen.

● **Baina zuek ba al dituzue frogak Josu bere buruaz beste egin ez zuela adierazten dutenak?**

Guk baditugu frogak, baina ez dizkigute onartzen. Gorputza lehen unean baltsamatu egin zuten, senideon baimenik gabe, eta hor frogara asko galdu egiten dira, autopsia egiteko. Gero, oinetakoetan ez zuen gorputza topatu zuten lekuko lurrik; pistolak ere kolpekaria jasota zeukan, eta hau bakarrik ez da igotzen, tiroa botatzen denean jaitsita gelditzen delako; giltzarik ez zeukan, ezta karterarik ere, ezer ez zeukan soinean. Kontu hauek guztiak ez dituzte frogara gisa onartzen. Ez zaie interesatzen kasua aztertzea, eta, orduan, hainbat aitzakia jartzen dituzte. Ezintasuna nagusi dugu, baina gure ahalegina egingo dugu, eta zerbait lortzen badugu, ondo.

● **Estrasburgen kasua aztertzea onartuko balute, aurrera; baina ezezkoa balitz, ba al dago beste aukerarik?**

Estrasburgekoak atzera botako balu, nik uste dut jada ez daukagula ezer asko egiterik. Bestela, berriz, guretzako gehiegizko lana litzateke, ez da broma izango; diru aldetik, abokatu kontuak eta gauza asko daude hor. Lan handia da, estatu bati jartzen baitiozu salaketa. Baina hor ginateke.

● **Eta erantzuna noizko?**


Ez dakigu, sei hilabete dira kasua aztertzeko eskaera sartu genuela. Uste genuen Gabonetarako erantzuna izango genuela. Eta une hauetan kasik nahiago erabakitzen ez badute, Jose Maria Aznar Espainiako presidentea baitago Estrasburgeko lehendakari izan.

● **Eta bost urte nola pasatzen dira horrelako borroka batean murgilduta?**

Jende askok kontua erdi ahaztuta edukiko du eta normala da. Baina familiarentzat ez da denbora pasatzen. Ohitu egiten da samin horrekin bizitzen; familiak ez du gaitzartzen pertsona hori hil egin dela, oroitzen beti bizirik delako. Gure barruan bizirik dago. Gainera, Josu zen bezalakoa izanda, zer heriotza eman zioten ikusita... Torturatuta hil zutela garbi dugu. Gure lana da salaketa egitea, eta horrek eramangarriago egiten du dena. Zailagoa litzateke etxean geldituko bagina. ●

Nerea Uranga / Iruñea


BULEGOETARAKO EKIPAMENDU OSOA



IKASI
MOBELTEKNICA

**MANPARAK
ZABIAK
LURRAK
ALTZARIAK
BULEGOETARAKO MATERIALA**

Zure lanordua arintzen ditugu



Juan Txiki poligonoa 11-12 zb - 20720 AZKOITIA
Tel.: 943 85 70 44 - Faxe: 943 85 36 33
ikasi@mobelteknika.com

udal erabakiyek

Enparango zubiak itxura berria izango du, eta argiztatu egingo da

Apirilaren 8an, Enparango zubiaren bi aldeetan petril berriak egiteko lanak hasi ziren. Petrilak berritzearekin batera, zubia argiztatu egingo da. Horretarako, Udaleko Hirigintza arduradunetako bat den Jose Mari Arregik azaldu bezala, "petriletan sartutako argiak jarriko dira, zubiaren ezaugarriei egokituta". Lanak hilabete inguruko epean amaituta izango direla espero da udaletxean.



Enparango zubian apirilaren 8an hasi ziren lanean. / NEREA ARANBURU

Jon Artano

gurien...

kazetaria

«Egia da lehenengo arropak eroatera Azpeitira etorri ginela»

Nerea Uranga / Zestoarra da. ETBko *Sorginen Laratza* programan dabil lanean gaur egun. Apirilaren 13an Alde Zaharreko Merkatariek antolatutako desfilean aurkezte moduan aritu zen.

• Nolatan desfilean aurkezte?

Harrituta gelditu nintzen deitu zidatenean, zalantzak ere izan nituen, eta azkenean baietz esan nien. Gizarte honetako gaixotasun handienetakoa zentro komertzial handien boom-a da. Niri ez zaizkit gustatzen. Penagarria da hango giroa, eta bertako usaina ere ez zait gustatzen. Horrelako desfile batek jendearen kontsumitzeko ohitura aldatzera animatzen badu, ondo. Uste dut, herrian kontsumitzea, azkenean denentzat dela onura.

• Zer moduz joan zen desfilea?

Argiak aurretik jotzen zidan. Itsututa egon nintzen, eta ez nuen askorik ikusten. Ez nuen horrelakorik sekula egin, baina plaza-gizona izan gabe ere, patxada pixka bat daukan edonork egiteko moduko lana da.

• Azpeitiarekin txikitandik duzu lotura.

Orain, gutxi. Larunbatean izugarri harritu ninduen nola jeitxi den giroa, jende gutxiago dabil. Nahi duguna esango dugu azpeitiarrengatik, baina beti etorri izan gara. Baita ikastera ere. Beti egin izan ditugu planak hemen, eta lagunak. Amarekin, lehenengo arropak eroatera hona etorri ginela ere egia da. Horren frogak erakutsi zizkidan amak, argazkiak erakutsi baitzizkidan. •

“ Uste dut, herrian kontsumitzea azkenean denentzat dela onura”



Xoxoteko aterpea berritzeko lanak atzeratu egin dira

Nerea Uranga / Xoxoteko aterpeko lanak apirilean hasiko zirela iragarri bazuen ere Lagun Onak Mendi Bazkunak, tartean izan diren arazo batzuegatik atzeratu egingo dira. Dagoeneko lanak egingo dituzten alor desberdinetako langileekin-eta hitz egiten hasiak dira, eta laster batean lanekin hasteko asmoa dute. Baina oraindik asteburuetan-eta bertan bolondres lanean laguntzeko lan taldeen egunak jarri gabe ditu Lagun Onak Mendi Bazkunak.

Aterpearen berritze lanetan hasteko prest daude dagoeneko, barruan zegoen tresneria guztia aterpearen atzealdeko leku irekian gorde baitute. Horregatik leku hau gordailu bezala moldatu eta itxi egin dute.

Dena den, urtero bezalaxe, Xoxoteko egunean, maiatzaren 26an, aterpearen kanpoaldean taberna irekiko dute, eta bertan ateratzen duten dirua ere aterpea berritzeko erabiliko da.

MENDI PROIEKZIOAK. Xoxoteko egunaren aurreko astean, azken urteotan mendi proiektzioak antolatu ohi ditu Lagun Onak Mendi Bazkunak. Aurten, mendi proiektzio guztiak Enparan Dorretxean izango dira, 20:30ean. Denera hiru izango dira, eta Asia, Amerika eta Europako lurralde eta mendiak ezagutzeko parada izango da. Maiatzaren 21ean, asteartean, Igor Mendizabalen eskutik Indiako Meru-Sivling 2001 ibilbidearen berri izango da. Bigarren proiektzioa hurrengo egunean, maiatzaren 22an, asteazkenean izango da. Hizlari Felipe Uriarte mendizale ezaguna izango da, eta, *Ameriketako Hiru Handiak* titulupean, sei mila metrotik gorako Ojos del Salado, Pissis eta Aconkagua mendietara eginiko espedizioez jardungo du. Maiatzaren 23an, ostegunean, izango da azken proiektzioa: Patxi Ibarbia mendizale azpeitiarrak iazko Transeuropa ibilbidearen berri emango du. •

Danborradarako talde berrientzat

San Sebastian bezperan danborra jo nahi duten talde berrientzat izena emateko epea ireki du Udaleko Festa Batzordeak, eta uztailearen 15a arte irekita izango da. Izene-matea Azpeitiko udaletxean egin beharko da.



Danborradako irudi bat.

Madrildik 275 milioi lortu dira San Agustinpeko aretoa egiteko

Espainiako Gobernuak Azpeitiko Udalari 275 milioi pezeta eman dizkio San Agustinpeko eraberritze lanak egin eta ikusentzunezkoentzako aretoa egiteko. Diru laguntza hori Azpeitiko Udalak eskatutakoaren bikoitza da. Dagoeneko ehun milioi gastatuta daude, teiltua berritu baita. Bertan egingo den ikusentzunezkoentzako aretoak aulki mugikorrek izango ditu, eta 300 lagunentzako lekua.

pertsonajie




Nagore Aranburu

Nagore Aranburu, 25 urteko azpeitiar gazteak antzerkian eta telebistan hainbat lan egin izan du dagoeneko. Herrian bertan, Antxieta Antzerki Taldean ekin zion antzezle lanari, 12 urte besterik ez zituela. Orain lan bat euskaratu du eta bertan antzezle ari da; *Murphy ginetik kendu ezinda* da

antzezlanea eta apirilaren 25ean estreinatu zuten, Vaiven antzerki taldearekin, Donostiako Antzoki Zaharrean. Antzelan hori Vaiven taldearekin egin duen lehen lana du Nagore Aranburuk. Bi urtean ez du antzerkirik egin, baina antzerki irakasle ibili da Donostiako Zurriola Ikastolan. Bestetik, telebistan ere badabil lanean; *Sorginen Laratza* ETBko programan gidolari lanetan ari da. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Maiatzaren 17a (ostirala)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)


AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:


TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Alde Zaharreko Merkatarien Elkarteko erosketak bonoa.

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIYUE



IRABAZLIE: Mila Egiguren



Mila Eiguren izan da 28. garailea. Alde Zaharreko erosketak txartel bat irabazi du. Argazkian, Juan Mari Gajate Alde Zaharreko Merkatarien Elkarteko batzordekoa —ezkerrean— eta Mila Eiguren ageri dira.

“ Loreetako
zaletasunean antz
handia dugu Maria Luisak
eta biok”

Kontxu Odriozola
(Goenkale-ko aktorea)

“ Urrian Europako
Dantza Txapelketara
joango gara, ea gauzak
ondo joaten diren”

Joxe Mari Orbegozo
(dantzaria)



Joxe Mari Orbegozo.

“ Paulo Txikia
bertsolari fina eta zorrotza
zen. Bertsotan sentitzen
zuen botatzen zuen”

Joxe Lizaso
(bertsolaria)

Loiolako Basilika Saninazio jaietarako berrituko eta irekiko al dute?

Nerea Uranga / Loiolako Basilikan 2000. urte-ko azaroan hasi zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak berritze lanak. Bi urtean itxita izango zela aurreikusi zuten lanak hasi zirenean. Dagoeneko urte eta erdi pasatu dira, eta aurtengo Saninazioetarako lanak bukatuko diren esperantza ere hasi da zabaltzen. Loiolako jesuitek ez dakite noizko bukatuko diren lanak, ezta noiz irekiko den basilika ere. “Saninazio jaietarako bukatuta egotea nahi bada ere, ez da ziurra hala izango den. Dena dela, udazkeneko bukatuta egongo dela uste dugu”, esan diote Uztarriari.

Aurtengo udan Loiolan ezkondu nahi duten bikoteek, azken bi urteetan bezala, hiru aukeraren artean hautatu beharko dute: Garate Anaiaren etxekoa, konbertsiokoa edota behin-behinekoa. Berritzeko itxi zenean, jesuitek aldameneko eraikuntzan, liburutegia dagoen eraikinean, behin-behineko kapera jarri zuten, ohiko eta ezkontza elizkizunetarako.

Basilika barruko kupularen pitzadurak konpondu nahi dira, eta lurzorua berriztatuz; horregatik itxi zuten. Basilikak bi kupu-

la ditu: bata kanpoko, eta bestea barrukoa. Kanpoko 1993tik 1995era bitartean berritu zuten, baina barrukoa lehen bezalaxe utzi zen. Ordutik, barrukoaren pitzadurak gehituz joan ziren, eta bertako margoak ere galtzen hasiak ziren. Orain, pitzadurak konpondu eta margoei berezko kolorea ematen ari dira.

Garai haxe, udaberria hain justu, izan ohi da Loiolara bisitariak etortzen hasten den garaia; bai atzeretik, eta baita eskoletatik ere, gero eta kanpotar gehiago etortzen da Loiola aldera, batik bat udazkena arte. Baina, oraingoz, bisitariek ezingo dute basilika bisitatu, bertako sarrera itxita baitago. Agian abuztuan, edo bestela udazkenean, irekiko ditu ateak. ●

datua

● **BOST EZKONTZA.** Basilikan itxi aurretik, bikote asko ezkondu izan da jaiegun eta asteburuetan. Loiolako Basilika, asteburu batzuetan, bost ezkontza izateraino ere iritsi zen obrak hasi aurretik.



Basilikaren berritze lanak. / NEREA URANGA



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

AZKOITIAN ALTAMIRA AUZOAN ETA AZPEITIAN PERDILLEGIN:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Merkataritza
 - Arotzerien eta altzarien fabrikazio industriala
 - Mekanika
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Administrazio eta finantzak
 - Zur eta altzari produkzioa
 - Mekanizazio bidezko produkzioa
 - Informatika sistemen administrazioa
- **Batxilergoak**

- DBH

- BATXILERGOAK

- HEZIKETA ZIKLOAK

● **AURREMATRIKULA**
EPEALDI ARRUNTA

Batxilergoak
Maiatzaren 2tik 10era (biak barne)

Erdi eta Goi Mailako H. Zikloak
Ekainaren 3tik 12ra (biak barne)

● **MATRIKULAZIOA**

Uztailaren 1etik 5era (biak barne)

EPEALDI BEREZIA

Goi Mailako Heziketa Zikloak
Uztailaren 22tik 24ra (biak barne)


KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Atztoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdillegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 37 70 Fax.: 943 85 66 20
E-mail: azpeitia@urola.hezitek.net




www.urola.hezitek.net



AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

“Arnasaldi txit
pozgarria Diego Garciaren
oroimenezko Euskadi
Irratiaren mahaingurua”

Xabier Lasa
(Egunkaria-ko irati-kritikoa)

motxien

Epaileen eskolan emaitza txarrena izan duen epaile bat Azpeitira

Apirilaren 4an Espainiako Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak jakinarazi zuenez, Espainiako Epaileen Eskolan emaitza txarrenak izan dituen epaileetako batek Azpeitiko Epaitegian egingo du lan.

ELAk egoitza berria hilaren 16an

Maiatzaren 16an inauguratuko du ELA sindikatuak egoitza berria, Arana kalean. Inaugurazio ekitaldia arratsaldeko zazpitan izango da egoitza berrian, eta bertan izango da, besteak beste, Jose Elorrieta ELAko idazkaria. Gaur egun egoitza Goiko Kalean dauka ELAk.

apirileko hiru irudiyek



NEREA URANGA



NEREA URANGA

DESFILEA. Alde Zaharreko Merkatarien Elkartek antolatuta, 2002ko udaberri-udako jantzi, gehigarri eta orrazkeren desfilea egin zen apirilaren 13an, azoka-plazan.

EUSKAL ESKOLA. Hau da! Kultur Elkartek, apirilaren 21ean, Euskal Eskola Nazionala aldarrikatu zuen, jai giroan. Euskal Herriko ikastola desberdinetakoak elkartu ziren.



LAGUN ONAK M.B.

GUADARRAMAN. 44 mendizalek hartu zuten parte Lagun Onak Mendi Bazkunak Aste Santutan Guadarramako mendikatera antolatutako irteeran.

ODRIOZOLA ARDOAK



Julio Urquijo, 18
Tfnua: 85 00 11
AZKOITIA

Iñaki Azpiazu, 5
Tfnua: 15 13 16
AZPEITIA



Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu



Telf.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

TABERNA



Telfnoa.: 943 151086

Enparantza Nagusia

HITZEIN
HITZEIN
HITZEIN

Izaskun Lizarralde

LOGOPEDIA

630 133 286 - 943 157 417
Urbitate 3. auzunea 20730 AZPEITIA

kitzika **joyería**

Brilanteak - Urre Zuria eta Oria - Festina Urrea

Pastorkua Tabernaren ondoan

Jose Artetxe, 13 - Tel. 943.15.76.13 - AZPEITIA

Maitane

Estetika

- Depilazioak
- Argizari epela
- Argizari hotza
- Azaleko tratamenduak
- Makilaia
- Solariusua

Masaiaik

- Kiromasaia
- Kirol masaia
- Drenai linfatikoa

Olazko Amaren Plaza, 9 - 6 c - Tfnua: 943 81 43 66



Azpeitiko presoak

Juan Carlos Arruti
(1.034 kilometrora)



Patera, Cadizko Puerto Santa Marian dago preso.
Azpeititik, autoz,

11 ordura.

Joxin Arruti
(142 kilometrora)



Joxin Arruti Santoñako El Dueso espetxean da preso. Azpeititik, autoz, ia bi ordura.

tik, autoz, ia bi ordura.

Garikoitz Etxeberria
(427 kilometrora)



Kafe Madrilgo Alcalá de Henaresen dago preso. Azpeititik autoz

bost ordura.

PRESOENGANA GERTURATUZ, ELKARTASUNEZ

Maiatzaren 25ean, bigarren aldiz, eta 'Elkartasunez presoak herrira' lemapean, egun osoko ekitaldia izango da Azpeitian




Nerea Uranga

Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak, Gazte Ekimenak, Etxeratek, Presoen Aldeko Ikasleek eta Askatasunak *Elkartasunez Presoak Herrira* eguna antolatu dute aurten ere.

"Elkartasun egunaren helburua jendea kontzientziaztea da, presoak eta iheslariak oraindik ere hor daudelako; nahiz eta lan asko egin den hauen inguruan, oraindik ere dauden egoeran daudela, eta hantxe jarraitzen dutela aldarrikatzea". Horretarako, "herri osoaren eta taldeen

inplikazioa eta ekitaldietan parte hartzea" eskatzen dute antolatzaileek.

Udaleko EAJ eta EAKo arduradunen aldetik, "normalean nahiko jarrera ezkorra" jaso izan dutela diote antolatzaileek. "Muntaketa lanetan-eta, beharrezko ditugun mikrofonoak,



EGITARAUA

● MAIATZAK 25 (larunbata).

● **10:30:** Herri krossa (sei kilometro). Ondoren, sari bana-keta eta korrikalari guztientzat hamaiketakoa. Plazan.

● **11:45:** Argazki erraldoia. Plazan.

● **12:00:** Herri kirolak, bertso-lariak, trikitalariak eta dantzariak. Herritar guztientzat sagardoa (txotxa) eta talo eta pintxo postuak jarriko dira. Erakusketak, informazio mahaiak eta materialen salmenta. Plazan.

● **14:00:** Herri bazkaria. Azoka plazan.

● **16:00:** Gaztelu puzgarriak. Olazko Amaren Plazan. Gaztetxoentzako gunea. Begiraleak egongo dira.

● **17:30:** Buruhandiak. Olazko Amaren Plaza. Gaztetxoentzako gunea.

● **19:30:** Manifestazio isila. *Elkartasunez, Euskal Presokak Herrira!* lemapean. Plaza-tik irtenda.

● **22:30:** Kontzertua.

eszenatokia... jartzeko gauzak errazten dituzte. Baina, preso-en aldeko ekimenetan euren presentziarik ez da izaten”.

HIRURAK KANPOAN. Azpeitiko presoak, hirurak, Euskal Herritik kanpoko kartzeletan daude. Hirurak egoera ezberdinetan, baina hirurek izaten dituzte arazoak bisitaldi-tan, deietan... Juan Carlos Arruti *Paterra*-k hamabi urte daramatza espetxean. “Egun, borroka batean sartuta dago, eta kartzelaldi gogorrean, gainera. Orain dela gutxi kartzelaz mugitu zuten”. Garikoitz Etxeberria *Kafe*-k ere izan ditu arazoak, bisitara hiru lagun joan eta bati bakarrik sartzen utzi ziotenean, kasu —Uztarría al-dizkaria ere hilero bidaltzen zaio, baina ez du jasotzen—. “Familiakoak eta, bisitatzeraz joateko, bidaia luzeak egin behar izaten dituzte, eta errealitateak erakusten du istripuak eta gertatzen direla”. ●

NUARBE, HERRI BAT



Nuarbe, itxura batean, herri txiki eta ikusgarritasunik gabekoa da. Pantanoak ez zion batere onik egin: zokoan sartuta geratu zen, horma erraldoi baten oinetan bukatzen den bide hil batek zeharkatua. Bidaiarien pasoa herritik kanpo geratu zen, eta horrek herria moteldu egin zuen. Taberna bat erre egin zen, bestea itxi egin zuten, bat ere gabe geratuz.

Herri baten edertasuna, ordea, ez da bere harrietan bakarrik aurkitzen. Herri bati edertasuna, interesa, bizitasuna, bertan bizi direnek ematen diote, horretarako gai baldin badira. Nuarbek beti izan du edertasun paregabea eman dioen jendea, asko gainera: esportatzeko moduan.

Garai batean otarregintza industria garrantzitsua izan zuen. Espainiako leku askotara eramaten ziztuzten otarreak, eta Azpeitian trenean sartu eta Zumaiaiko itsasontzietan baita Europa aldera ere.

Nuarbek zoritxar ikaragarri batekin hartu zuen izena eta lekua Euskal Herrian: Anjel Otaegi fusilatu zuen Francok. Abertzaleen eta euren elkartasuna agertu nahi zuten guztien peregrinazio leku bihurtu zen urte askotan. Nuarbek beti besoak zabalik hartu zuen jende guztia.

Urte askotan, baita ere, Nuarbe euskara ikastera zetorren jendearen jomuga izan zen. Euskara, Azpeititik zenbat eta urrunago, orduan eta hobeto hitz egiten da. Urrestillan Azpeitian baino hobeto; Nuarben Urrestillan baino hobeto; Matxinbentan eta Beizaman Nuarben baino hobeto. Hori batetik. Eta, bestetik, goraxeago aipatu dugun Nuarberen beso zabaltasunak egin zuen posible, urtero-urtero, Euskal Herriko edozein bazterretatik jendea Nuarbera etortzea. Jende argia eta sinpatikoa baita Nuarbekoa. Bikoteak ere sortu ziren euskara ikastearekin batean.

Baina Nuarbek badu munduaren gailurrera eraman duen beste zeregin bat: sokatira. Asteotan ari dira taldearen sorrerako 25 urteak ospatzen. Sokatira izan da azken urteotako pizgarria Nuarberentzat. Europako beteranoengandik ikasten hasita, askotan nagusitu dira bai Europa mai-

lan baita mundu mailan ere. Garaipen horien atzetan dagoen lana eurak bakarrik dakite, zenbat entrenamendu, zenbat izerdi, sakrifizio, zenbat poltsikoko diru-jartze, nolako amore propioa behar duen 100 biztanleko herri batek maila horri eusteko!


Sokatira izan da Nuarben unibertsitatea eta bidai-agentzia: sokatiran ikasten da lagunartean egoten, elkartasuna, umoreari eusten unerik txarrenetan ere, eta beste gauza asko; sokatirarekin bidaiatu dute mundu guztian zehar, munduko hainbat telebistetan agertu dira, hizkuntzak txapurreatzen ikasi dute, New Yorkeko kale basatietan gauaz ibiltzen, eta beste zenbait kontu!

Etxarriko taldeak Japonen egin zuenak kalte nabarmena egin die nuarbetarrei, eta sokatira munduari orohar. Une txarrak ari da pasatzen sokatira, eta nuarbetarrak ere bai. Urteetan isilik, baina tinko, moldatu dira Espainiako banderarik eta himnorik erakutsi beharrik gabe, beti ikurrinak eta *Pays Basque* edo *Basque Country* eta antzeko sinboloak erakutsiz. Orain etorkizuna bera dago jokoan.

Eta ez sokatirarena bakarrik. Herri txikiaren etorkizuna ere jokoan dago aspalditik. Eta

Nuarbek bizi nahi du, bizirik egon nahi du datozen belaunaldientzat ere. Bere nortasunarekin bizirik. Bere aberastasunarekin bizirik. Etxe berrien espekulazio zaka-rrak usteldu du herri askotako nortasuna. Herri txikieta-ko jaietara ez da aspaldi inor joaten.

Herriak bisitatu egin behar dira. Guk gazteagotan bage-nuen herriak ezagutzera joa-teko ohitura. Gaur gazteak ez dira Azpeitiko zulotik ateratzen. Nuarbetarrek nahi dute euren herrira jendea joatea. Ondo hartuko zaituztete. Nuarbe ezagutzen ez duenak zer-bait galduko du bere bizitzan.



HILEKO GALDERA. Zubi-Zaharren entseatzen dute rockero gazteek, baina etxe aurreran auto berri-berriak ikusten dira. Rock alternatiboa galdu al da?

www.uztarria.com

Uztarria.com lemarekin elastikoak jarriko dira salgai maiatzean

Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre (Azpeitia).
Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Web orria:

www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.800 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna



Uztarria Kultur Koordinadorak maiatzean uztarria.com lemarekin elastikoak salduko ditu. Elastikoak saltzen jartzeko arrazoiak bi dira batik bat: Uztarriaren webgunea ezagutzera ematea eta webgunearen mantenurako diru iturri txiki bat izatea. Beraz, horrelako elastiko bat erosten duenak, uztarria.com webgunea diruz lagunduko du.

Elastikoak manga motzak izan-

go dira, taila guztietakoak atera eta hiru koloretan salduko dira: laranja, morea eta urdin argia. Salneurria berriz, 12 eurokoa (2.000 pezeta) da.

Elastikoak maiatzaren hasieratik saltzen izango dira herriko zenbait tabernetan, astearteroko azokan eta Uztarriako lokalean (Julian Elorza Hiribidea 4-2 ezkerre edota 943- 150358 telefono zenbakian).

albiste txikiyek

Webgunean albisteak erantzuteko aukera

Uztarria.com-en apirilaren hasieratik albisteei erantzuteko aukera dago. Uztarriaren webgunea bisitatzen dutenen artean, Uztarriak egindako azterketak azaltzen duenaren arabera, eztabaida eta azkenengo albisteak dira bisitatue-nak. Orain, berriz, bi aukera hauek uztartu nahi izan dira, albiste bakoitza osatu, erantzun edota iruzkina gehitzeko aukera eskainiz.

Bartzelonan ohiartzuna webguneak

Linguapax-ek antolatutako Hizkuntza Politikei Buruzko Mundu Mailako Kongresuan izan da apirilaren erdialdera Bartzelonan. Han, uztarria.com webgunea adibidetzat aipatu zuen Gotzon Egiak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Teknikariak, euskara teknologi berrietan eta interneten bultzatzeko bide bezala.

558 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21,04 euro (3.500 pezeta) / Bestela harpidedun izan zaitezke, doan (kontu korrontearena ez beste guztia bete)

IZEN-ABIZENAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

KODE POSTALA:

TELEFONOA(K):

POSTA ELEKTRONIKOA:

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak):

Julian Elorza Hiribidea, 4, 2. ezkerre • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarria@topagunea.com

Ramon Etxezarreta

PSE-EEko zinegotzia Donostian



**“Gaur egun ez nago aut
baina errespetatuko n**

Zazpi urte daramatza Ramon Etxezarreta urrestildarrak Donostiako zinegotzi, PSE-EEtik. Eta kontent dagoela dirudi egiten duenarekin, bestela “asko sufritzen” ari den arren, “baina sufritzen duenak ez du zertan eduki arrazoia”, dio behin baino gehiagotan

Nolatan sartu zen PSOEn?

- Orain dela zortzi urte afiliatu zen, Ramon Jauregiren “politika baskista” gustukoa zuelako eta berak lagundu zezakeelakoan

Noiz sartu zen PSOEn Ramon Etxezarreta? Eta nolatan? “Ni 1994an afiliatu nintzen, Ramon Jauregik hauteskunde autonomikoak galdu eta hurrengo egunean, eta ez irabazi eta hurrengo egunean *porzieto*”, azpimarratzen du urrestildarrak. Jende askok ez omen dio barkatu. “Orduan zenbait jendek traizio bezala hartutako kontua izan zen, eta beste inori baino etsaitasun, herra handiagoarekin eraso zidaten”.

Euskadiko Ezkerrako batzuk PSEra pasatu zirenean, Etxezarreta ez zen haiekin batera pasatu, geroago baizik. “1994a baino pixka bat lehenago manifestu baten babesa azaldu nuen, baina artean pasatu gabe nintzen alderdira, ez nintzelako EEEKo konbergentziarekin pasatu. Jauregiren politika *baskista* ikusita afiliatu nintzen

alderdi sozialistan, ni bezalako jendearen laguntzaren premia orduan zuelako alderdi honen”.

“**TXARRENA EZ**”. Erabaki hura “gauetik egunera ez” zuela hartu dio urrestildarrak. “Izan ere, politika ere ez duzu ikusten, nik behintzat, hogeitertekin ikusten zenuen bezala, eta ezabapenez jokatzeko duzu, txarrena ez dena aukeratuz; alegia, guztiok dugu sistemaren inperfekzioa ikusteko gaitasuna, eta inperfekziorik txikiena duena aukeratzen duzu. Garai hartan alderdi sozialista euskal kultura eta euskararen ganako hurbiltze txikia egiten hasi zen Jauregirekin, eta keinu haietan itxaropena jarri nuen. Orduan antolatu zuen PSE-EEK euskararen konferentzia; Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta hirurok izan gi-

nen, eta halako itxaropena sortu zuen konferentziak, gero benetan behar bezalako emaitza eman ez arren. Beraz, ordurako inguru horretan mugitzen nintzen, ez inguru organikoan baina”.

Orain inguru organikoan sartuta dago, Donostiako udaletxean zinegotzi baita 1995etik. “Baina gora-behera handiekin nabil, ez dituzulako zeure alderdiak egiten dituen gauzak ulertzen, ez duzu guztiarekin bat egiten eta gauza batzuetan ez zaude batere ados. Baina Donostiako Udaleko zinegotzi izate honetan zentratuta nago eta Odon Elorzaren proiektuan ere oso zentratuta, uste baitut Odonek euskal herritarrekiko eta Euskal Herriarekiko oso sentsibiltate irekia eta anitza duela, eta politika frentista egin izan den garaian, guk ez dugu frentismorik egin”.

determinazioaren alde, ke herriaren erabakia”

Enkeltz Esnaola / Donostia

Udaberriko arratsalde bat izan arren —apirilaren 3a—, oso ilun dago Donostian. Lanbroa ari du eta ez du aterbetik irteteko gogo handirik ematen. Antzeko giroa dago Euskal Herriko politikan ere: narrastua, hitsa, iluna. Donostiako udaletxea bera hotz dago, ilun, apenas dagoen jenderik; harrera-koak, garbitzaileak... eta, ustez, bizkarzainen batzuk, hauek gela handi eta kurioso

bateko jarleku zabal eta dotorean eserita —kasinoa zen lehen udaletxea—. Ramon Etxezarreta bera bizkarzainekin ibili ohi —edo bizkarzainak berekin—, ETArekin jomuga direlako PSOeko arduradunak, eta bizkarzainekin ibiltzea deserosoa egiteaz gain, urrestildarrari kontu horretaz hitz egitea bera ere ez zaio laketa. Politikaz mintzatzea bai, luze eta zabal. Eta “ilusioa” egin dio Uztarriak elkarriketa egitea. Zazpi zigarro beltz erre ditu hiru ordu laurdeneko jardunean; etendako jardunean, bost

aldiz deitu diotelako poltsikoko telefonora. Atzo ere deitu zioten, guardia zibil batek Lezoko PSE-EEKo zinegotzi baten bizkarzaina hil zuela abisatzeko.

• **Azkenaldian ez dagoela giro, Ramon...**

Ez dut ulertzen zergatik, baina egun gorri da. Irautea da arazo nagusia eta hori ez da gauza ona. Izan ere, pertsona baten arazoa, besterik gabe, iraupena denean, pentsatzeko eta ñabardura ideologikoetarako zirrikitu gutxi egoten da.

• **Baina gatazka lehen beste modu batera »**

“Sufritu denek egiten dute, asko, baina sufritzen dutenek, sufritzeagatik, ez dute arrazoirik”



» **biziko zenuen, ezta? Orain pertsonaltuago?**

Ni hemen, Donostiako udaletxean, sartu nintzenetik —1995etik— oso gertutik sentitu dut gatazka.

● **Eta betiko galdera: nola konpondu sufrimendu hau eta gatazka politiko hau?**

Sufrimendua bukatzeko, alde batek eta besteak, ez dute sufrimendurik eragin behar...

● **...beraz, onartzen duzu sufrimendua bi partetan dagoela, ez alde bakarrean soilik.**

Sufritu denek egiten dute, askok eta asko, baina sufritzen duten guztiek, sufritzeagatik, ez dute arrazoirik. Oso pentsakera kristaua eta katolikoa da asko sufritzen duenak duela arrazoa. Esaten da: “Pentsatu zertaraino daukan arrazoa, bizia emateko prest dagoela!”. Ez, ez, bizia jende askok eman du merezi ez duten kausa askoren alde, eta horrek inoiz ez du esan nahi arrazoa hor dagoenik. Nire sufrimendua izan daiteke sufrimendu erratua. Eta nik uste dut ezerk ez duela merezi nire bizia eta inguruko bizia.

● **Jende asko ari da sufritzen, baina jende guztia ari al da konponbidearen bila?**

Bai seguruenara. Konponbidea norberak dagoen lekuan ikusten du, eta, jakina, konponbidea ez da nik egin nahi dudana eginaraztea eta ez da, ezta ere, beste inork egin nahi duena niri eginaraztea. Konponbidea da adostasuna, eta adostasun horretan norberak zerbait utzi beharko du orokorrean. Negoziazio guztietan guztiek

zerbait uzten dute, eta azkenean, seguruenara, hortik dator irtenbidea: zer utzi behar duen gutako bakoitzak, gizarte honetan normal bizitzeko. Gizarte honetan elkarrekin bizitzera kondenatuta baldin bagaude, guztiok zerbait utzi beharko dugu.

● **Eta zure alderdiak zer proposatzen du?**

Gure alderdia une hauetan batasun demokratikoa aldarrikatzen ari da, eta, nire ustez, prozedura ari da aldarrikatzen. Eta ez nuke esango guztiek gauza bera pentsatzen dutenik, baina nolabait alderdia hau ari da esaten: edozein dela konponbidea, dagoen puntutik abiatu behar da. Batzuek Estatutua eta Konstituzioa helburu maximo bezala aldarrikatzen dituzte, sakralizatu egiten dira, baina beste batzuentzat Estatutua eta Konstituzioa abiapuntu dira, eta abiapuntu hori onartzea esaten da, irizpide demokratikoengatik, besterik gabe, eta gero datorrena etorriko da: marko hau gainditu egin behar dela, marko hau aldatu egin behar dela...

● **Baina justua al da Espainiako Konstituziotik abiatu behar dela esatea, 1978ko erreferendumean Araban, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan %34ko babesa soilik eman zitzaionean?**

Nik baietz uste dut, beste irteera eta formula demokratikorik ez dagoelako. Euskal Herriak Konstituzioarekin, bere akats eta gabezia guztiekin, adinako ahalmen politikorik ez du inoiz izan bere historia osoan. Euskal Herrian hiru probintzia, hiru eh!

“Estatutua eta Konstituzioa dira abiapuntu; ez dago beste irteera eta formula demokratikorik”

[Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa], ez dira inoiz bat izan, eta Konstituzioarekin izan dira. Ikurrina, nahiz eta ez duen ematen, Espainiako Konstituzioaren baitan da legeko. Euskal herritarren norbanakoen eskubideak, espreski formulatuta, Konstituzioan daude... Hori hor dago, eta garai hartako joko arauarekin egin zen. Abiapuntu bezala hor dago. Gero beste gauza bat nahi dela?... Bueno.

● **Baina zuk aipatutako hiru probintzien gehiengoak ez du Konstituzioa onartzen.**

Baina aurretik ez dago beste formula demokratikorik. Garai hartako gehiengoak ukatzen al du Konstituzioa? Begira, nik Konstituzioari ezezkoa bozkatu nion. Ez dut batere lotsarik hori esateko. Ni garai hartan autodeterminazioaren alde nengoen. HBk kontzeptu likidazionista kontsideratzen zuen autodeterminazioa. PNVk Espainiako Gorteetan ez zuen defenditu nahi izan autodeterminazioa. Nire alderdiak —EEK, ez beste inork— planteatu zuen autodeterminazioa onartzea Espainiako Gorteetan. Orduan ni garaiz kanpo egongo nintzen, orduan ere, zenbaiten esanera, euskaldunen kontra, eta orain hemen gauzak aldatu egin dira eta nik segitzen dut orain ere kontra egoten... Zer nahi duzu nik esatea? Ez nagoela ni edozeinen errotarriak irensteko.

● **Zu orain autodeterminazioaren alde al zaude?**

Orain ez. Une hauetan ez zait komenigarria iruditzen.

● **Beraz, aldatu dena zu izan zara eta ez Konstituzioa?**


Baina horrek ez du esan nahi alde ez nagoen gauza bat onartzeko prest ez nagoenik. Orain ez dut beharrezko ikusten autodeterminazioa, eta, gainera, ikusten dut izugarrizko eztabaida eta erabaki ezina autodeterminazioaren sujetoa. Autodeterminazioa gaur egun lurraldeei gehiago aplikatzen zaie, eta nik ez dut lurraldeetan sinesten, baizik eta komunitateetan, pertsonen komunitateetan, eta orduan euskaldunen komunitate bat mila erara egin liteke: komunitate politiko bat, komunitate kultural bat, hizkuntza komunitatea, komunitate ekonomiko bat... Eta hor sar daitezke nafarrak, nafarrak ez direnak...

● **Beraz, Espainian ez al duzu sinesten, Espainia lurralde bezala hartuta?**

Ez, ez. Niri Espainia lurralde bezala ez zait interesatzen.

Odon Elorza, euskara eta militantzia

● **Odon Elorza asko famatzen du zinegotzi urrestildarrak. Adibidez, Donostiako alkateak euskaraz ikasteko borondate handia omen du. “Odonek astean sei ordu egiten ditu ikastaroan, eta oso zaila da hari edozein agerraldi publikotan euskara ahanzte”. Ramon Etxezarretak, ordea, euskaraz gutxi egiten dio alkateari. “Materialen bat eskatzen badit, ematen diot, baina hitz egin, gutxi”. Ezta lanetik kanpo ere, modu informalagoan? “Nire denbora librean, afarrietan-eta, Odonen euskara irakaslea bihurtzea ere...; horrenbesteko militantea ere ez naiz, sentitzen dut”.**



PSE-EEko zinegotzi urrestildarra, elkarrizketako une batean. / ENEKOITZ ESNAOLA

“Espainiaren batasunak axola dit niri gutxien; nik beti eskubide indibidualak azpimarratuko ditut”



“ETA egon edo ez, politikan dabilenak badaki konponbideak politikoa izan behar duela”

● **Baina zer harreman edo zerikusi dute Andaluziak eta Espainiako Estatuan dagoen Euskal Herriak?**

Niretzat handia. Nik kultura konpartitu bat daukat. Espainiako literatura edo Frantziakoa nire patrimonio pertsonalean daude, nire bizipenagatik. Gainera, logikoagoa da Andaluziarekin solidarioagoa izatea Afganistanekin baino, arrazoi objektibo bategatik: askoz andaluziar gehiago ezagutzen dut afganoak baino. “Katalanekin solidario gara”, esaten dute abertzaleek, baina hori gezurra da. Aragoirekin ez bazara, Kataluniarekin ere ez. Katalunia urruti dago, ez dizu enbarazu egiten eta horregatik zara solidario. Solidaritatea? Dena; baina gertukoekin elkartasunik ez duenak urrutikoe-kin duenik ez dut sinetsiko.

● **Lurraldearen gaiarekin segituz, Espainiako lurraldeak marrazten eta ixten dituen alderdi bateko kide zara.**

Aurreiritzi batzuk daude hor. Niri zerk axola dit gutxien? Espainiaren batasunak. Euskaldun nazionalista bat bezain negati-boa da, niretzat, Espainiako nazionalista bat. Nik beti eskubide indibidualak azpimarratuko ditut. Orain Euskal Herrian eskubi-de kolektiboen diskurtsoaren bidea dara-

magu. Eta garbi dut eskubideon izenean eskubide indibidualak ez direla errespetatzen, baina inorenak ez.

● **Eta ezin al daitezke bi eskubideak bate-
ra defenditu? Edo zer ba, lehendabizi esku-
bide indibiduala eta gero kolektiboa?**

Aurrena indibiduala, hori garbi. Biak bate-
ra ez. Kolektibo batek erabakitzen badu
“zu hiltzeko eskubidea dut, legeak hala jar-
tzen duelako”, kolektibo horrek ez du ba-
lio, oinarritzko eskubidearen kontra doala-
ko, eta eskubide indibidualak beti egon
behar du bestearen gainetik. Gero, jakina,
norbanakoak komunitate batean antola-
tzen direnean, arau batzuk jarri behar dira,
baina oinarritzko eskubideak urratu gabe.

● **Eta zu inguruko denekin al zara solida-
rio?**

Pentsatzen dut izateko beharra dudala.
Eta pentsatzen dut, baita ere, pertsona
bakoitzaren eskubideak errespetatzeko
prest ez dagoenak ez dituela komunitate-
ko kolektiboaren eskubideak errespetatu-
ko.

● **Eta batek esaten badizu: “Nik zure esku-
bideak onartuko ditut, zuk nireak onartzen
badituzu, eta, beraz, nik erabakitzen duda-
na errespetatzen baduzu”.**

Nik guztien eskubideak errespetatzen di-
tut, guztienak errespetatu behar ditut.

● **Azken batean, erabakitzen dena erres-
petatzea da autodeterminazioa, ezta? Eta
zuk, diozun bezala, guztien eskubideak
errespetatzen badituzu, ez zaude autode-
terminazioaren kontra...**

Euskal Herriaren gehiengo autodetermi-
nazioaren alde badago, nik hori errespetat-
tu egingo dut, neu kontra egonda ere.

● **Baina hori nola gauza daiteke? Ez irudi-
tzen abertzaleek hori eskatzen dutela? Eta
abertzaleak gehiengo dira EAEn, eta Na-
farroa kontatuta ere balirateke. Eta La-
purdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa kon-
tatuta ere hortxe-hortxe.**

Baina abertzaleak beraiek ez datoz bat
proposamena egiterakoan! Niri autodeter-
minazioa ez zait interesatzen tresna beza-
la, baina nik uste dut erakutsi izan dudala,
nahiz eta kontra egon, badakidala erres-
petatzen. Eta komunitateak erabakiko du
erabaki behar duena, gaur ez bada bihar.

● **Zuk asko idatzi izan duzu komunikabide-
etan. Hona hemen zure artikulua batzuetako
hitzak edo esaldiak. Aurrena: “Euskal
Herrian, nire herrian”...**

Jakina! Ni hemengo naiz.

ERAGIN

Etxebizitza Berriak Enparan Kalean



3 logela
egongela
sukaldea
2 bainugela
trastelekua

943 - 474699 / 609403081

- **Beste batzuek eranstean dute Euskal Herria “Espainia” dela, eta, beraz, Espainia dela haien “herria”.**

Baita ere. Ez dut arazorik Espainia dela nire herria esateko. Baina nik hurbilenekoak ezagutzen ditut gehien: gurasoak ditut, neure lagunak ditut, Urrestillakoa naiz, baita Azpeitiko ere pixka bat... Eta zaletasun aldetik: euskal kultura, hizkuntza... Eta nire kezka zentrala Euskal Herria da.

- **Baina PSEko batek termino bezala Euskal Herria erabiltzea...**

Ah, nik bai! Eta HBk baino lehenago! Eta Euskadi ez zait gustatzen, ezta erdaraz ere. Nik euskaraz Euskal Herria erabiltzen dut eta erdaraz Pais Vasco. EAJ, berriz, hor dago, oraindik ez dakiela Euskadi ala Euzkadi den. Nik Euskal Herria kontzeptu zabal bat bezala ikusten dut, eta hor sartzen dut Nafarroa, eta Iparralde ere bai. Desgastatu gabeko termino politiko bezala hartzen dut Euskal Herria, berezko izen bezala, nazio izan, ez izan, independente izan, ez izan. Euskal Herria, Euskal Herria da, euskaldunen herria. Euskadi zer da? Terminoa sabinianoa, eta gaur egun erkidego autonomia gehiago eta gazteleraren eraginez nagusiki.

- **Bigarren aipua, bi zatitan: “Alderdi Popularrak ez darama bide onik” eta “alderdi sozialista autonomoagoa agertzean, PP bakarrik gelditzeko beldur da”...**

PPkoek biktimei eta erasotutakoei babesa adierazten diete, baina hor ez da indibiduorik, hor kolektiboa dago, nazionalista espainolak daude, eta PPri komeni zaio hori. Diskurtso indibiduala ez du batere komentatzen. Zergatik? Diskurtso horrek jarrera desberdinak ekartzen dituelako, eta PPK eskatzen duena da “nik zu defendituko eta babestuko zaitut, baina zu, nirekin!”. Eta bere kontra azaltzen dena, ETAKoa da. NI hor erabat deseroso sentitzen naiz.

- **Hirugarrena: “Urtebete egitera doa ETAK ofizialki armen isiltzea eta indarkeria politikoaren behin-behineko baztertzeari dekretatu zuela”...**

Dudarik ez dago ETAK indarkeria tresna politiko bezala erabiltzen duela. Helburu politikoak dituen indarkeria da. Eta, bestetik, dekretatu idatzi nuenean, zera esan nahi nuen: orduan ETAK urtebete zerraman su-etenean, eta manifestazioetan gazteak artean “gora ETA militarra!” esanez entzuteak harritu egiten ninduen; “baina ez al dago ba su-etenean?”, galdetzen nuen neure artean. Horrekin somatzen nuena zen, independentzia izan, autodeterminazioa izan, KAS Alternatiba izan, jende batek “ni ETAKoa naiz, sistematikoki, leialtasunagatik” dioela; ETARI, eginak egin, esanak esan, obeditzen diola.

1979tik 1987ra zinegotzi Azpeitian

- **Ramon Etxezarreta lehenagotik ere izana da zinegotzi: Azpeitian, 1979tik 1987ra, Euskadiko Ezkerratik. Lehen legegintzaldian, Eseiako jendearekin-eta, Xabier Aranguren, Leandro Larrea eta Maria Angeles Amenabar izan zituen taldekide. Bigarrenengoan, Laxaro Azkune. Eta “oroitzapen onak” ditut, “denbora pasatu ahala, hobeak”. EEK “talantea” aportatzen zuela dio; “kudeaketa EAJk zeukan”. Baina gauzak lortu zituztela ere badio: “Euskarazko aldizkari bat ateratu genuen, Herri Hotsa, egunkari formatoan, Udaleko aurrekontua-eta azalduz. Ez zidaten utzi bigarrena ateratzeko”.**



Ramon Etxezarreta, Donostiako udaletxean. / ENEKOITZ ESNAOLA

Urrestildarra Urrestillan

- **Etxezarreta “Urrestillakoa” da —“baita Azpeitiko ere pixka bat”— eta Donostiatik hona etortzean Urrestillan gelditzen da batik bat. “Izan ere, Azpeitia jada ez dut kontrolatzen. Urrestillan lagun asko ditut, eta lagunek zure txarra ere barkatu egiten dute”. Ez zaio eroso egiten bere herrian ere bizkarzainekin ibiltzea, eta ez zaio horretaz hitz egitea gustatzen. “Askok sufritzen dut, baina horrek ez du esan nahi arrazoiak dudarik. Era berean, presoan amekin eta senideekin hitz egiten dut, eta badakit zer sufritzen duten, baina horregatik arrazoi politikoak zer emanik ez daukat”.**

- **Beraz, indarkeria politikoa bada, konponbideak ere politikoa izan beharko du.**

Horixe baietz! ETA egon edo ez egon. Politikan dabilenak badaki konponbide politikoak behar direla. Eta konponbide politikoa da, adibidez, ETAK esatea ez duela gehiago hilkor.

- **Laugarrena: “Herritarrak [su-etenean], oro har, zoriotsuagoak izan gara”...**

Neure esperientzia pertsonala ez zen izan gozoa su-etene garaian, baina nabarmena zen jendea askoz gusturago bizi zela, beste eufori bat zegoela, beste baikortasun bat. Ez hiltzearen zera hori nabarmendu egiten zen.

- **Bosgarrena: “Logika irlandarra —Majorren jarrera, Blairren garaipena, Stormont...— ez zait gaizki iruditzen, baldin eta logika militar irlandarra abian jartzen ez bada”...**

Hemen zentzuzko beldur bat sartu zen. Nik Lizarrari eta Lizarrako prozedurari orain ere ez diot akats handirik bilatzen. Haren aplikazioari bai, ordea. Eta Otegi, Arzalluz eta Elorrieta aguantatzea... “Gehiengo gara” sineste horrek eta objektiboki gehiengo izateak zenbait neurrigabekeria martxan jartzea egin zuen, eta nik uste dut gauzek erritmo makalagoa behar dutela eta gizarte onarpen zabalagoa gehiengo justu horrena baino. Hor egon zen akatsa, euskal herritar estereotipo bat markatu zen eta hor sartzen ez ginenak kanpoan geratzen ginen. Eta, bestetik, ez dut su-etene bat ulertzen presoak gehiago mugitu gabe, eta alde horretatik ere oso gaizki kudeatutako tregua izan zen.

- **Seigarren aipua: “Nafarroako lehendakariak euskarari buruz esandako astakeria”...**

Atzo azpeitiar batekin hitz egiten eta esaten genuen: “Barakaldon kale-garbitzaile izateko euskara eskatzen da eta Bizkaiko diputatu nagusi izateko ez. Hor zerbait badago gaizki: kale-garbitzailearen postua edo diputatu nagusiarena”. Hor nik abiapuntu bat dut: nik bi hizkuntza aitortzen ditut, biak eskubide beraiekin...

- **Bi? Edo hiru?**

Beno, hiru. Eta hor ere eskubide indibiduala azpimarratzen dut. Eta eskubide indibidualak zer behar dute? Elkarbizitzarako ondo araututako markoa, eta espainoldunek eta frantsesdunek ohitu behar dute beste hizkuntza ere [euskara] errespetatzen.

- **Esandako guztia esanda, ez duzu PSOEkoa ematen, Ramon!**

Ez, PSOEen ni bezalako askorik ez dago. •

beloki
Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
se Artele, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



EDUARDO BERASATEGUI

Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKO 15 00 03
AZPEITIA



**Harategia
Odriozola**

Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA, 4

TFNOA. 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TFONOA.: 943 811671

EUSKO LABEL



KALITATEA

datue

11.600

liburu daude Azpeitiko Udal Liburutegian. Ia lautik bat haurrentzako eta gaztetxoen-entzako liburuak dira.

dato historikue

19

urte dira Julian Gorospe txirindulariak, Azpeitia eta Errezil arteko erlojupekoan oinarrituz Euskal Herriko Itzulia irabazi zuela.

esaldiye

“Euskaraz idazten duen idazle profesional gutxi dugu”

Tere Irastortza

(Euskal Idazleen Elkarte-ko Lehendakaria)

esaerie

“Hizkuntza herriaren hats”
Herri Urrats 2002

liburutik ttak

“Euskara traba bat da alderdi politikoentzat. ESB alderdian ere gisa horretan ikusten ziren gauzak. Ez zuten alderdia euskalduntzeko asmo erabatekorik eta gu kontuak eskatzen hasi ginelarik, erantzuna izugarri gogorra izan zen, alderdia zatitzen ari gina eta 1980an bota egin gintuzten. Horrela sortu genuen EHE. Mugimendu berri honen hasieran ibili ginen batzuk ESBtik pasatutako jendea ginen. Berrirori ere: euskara nire eragile nagusi”.

‘Hitza hitz. Txillardegirekin so-lasean’. Joxean Agirre. Elkar argitaletxea. 1996. urtea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



DERRIGORREZKOA, EMAZTEAREKIN BIZITZEA

Beste garai bat zen noski, eta herriko agintaritzara iritsi nahi zuen azpeitiarrak baldintza batzuk bete behar zituen: kaparetasuna eta aberastasun baten jabe izatea, herri barruan bizi beharra eta abar. Ohikoa zen bezala 1559ko Mikel Donearen egunez, agintarien aukeraketa egitean, nahiko iskanbila sortu zen, bildutakoan artean Sebastian Altuna zutitu eta Juan Perez Olazabal jaunaren aurka hastean, salatari benetan, esanez ezingo zuela parte hartu aukeraketan, bere emaztea ez zuelako etxean aspalditxoan, baizik eta Beizamako Munagarai bere baserrian. Gutxienez urte eta erdi edo bi urte bai bereizita bizi zirela, delako Juan eta haren emaztea.

Baina ez zen hor amaitu guztia; beste salatari bat ere ausartu zen. Horrela Pedro Goiaz jaunak adierazi zuen, Akemendi lizentzia-

tua ere ezin zitekeela aukeratua izan, senar-emazte bizitzarik ez zuelako egiten, bera herrian bizi zen bitartean, Urrestillako Antxietan zuela emaztea. Bat eta besteak eraso zioten gogor ondoren, arrazoi bezala garbi utziz, herri barruan beraien etxeetan zituztela emazteak, baserriko lanetan laguntzera joaten zirela gurasoei eta anaia-arrebei zenbait alditan. Herriar askoren emazteek egiten zuten bezala, baserrian gehien behar izaten zen garaian.

Izugarritzko iskanbila sortu zen, era guztietako iritziak agertuz bildutakoan artean. Bertan aurkitzen ziren eskribauak eta abokatuak ahalagindu ziren bakea lortzen, azkenean erabakiz gutxienez sei hilabete bizi beharko zutela herri barruan, beraien emazteekin eta seme-alabekin. Bi salatuek ere egoki hartu zuten erabakia, beteko zutela aginduz.

garai bateko Azpeitiye Jesusa Lesakak kontatua

Aiton-amonon dantzalekuak

Igande arratsaldeetan Oñatzeko eta Aratz Errekako erromerietara joaten ziren, dantza egiteko gogoz betiere

Ion Aranburu

Gaur egun tabernetara edo dantzalekuetara joaten da jendea ondo pasatzeko asmoarekin. Gure aiton-amonon garaian, aldiz, erromerietara joaten ziren, baina asmoa, orduan ere, bera izaten zen.

Jesusa Lesaka urrestildarrak ederki gogoratzen du nolakoak izaten ziren igande arratsalde haiek. “Gu seiko edo zazpiko neska koadrila ibiltzen ginen eta erromerietara oinez joaten ginen”. Inguru-ko erromerietara joan ohi ziren Jesusa eta haren lagunak. “Lehenengo, Aratz Errekara joaten ginen eta han ez bazegoen soinurik Oñatzera joaten ginen. Behin baino gehiagotan gertatu zitzaigun bietan erromeria-rik ez egotea, eta orduan etxe aldera joaten ginen. Urrestillako kaleetan buelta bat ematen genuen eta iluntzerako etxera”.

Erromeria ezagunenak Oñatzekoak izaten ziren, inguruko jende gehien bertan biltzen bai-

zuten. “Kuku Herrikoak, Aratz Errekakoak, Atxumariagakoak eta denak han biltzen ginen”, dio Jesusa Lesakak.

NESKAK DANTZAN AURRENA. Erromeri haietan giro ederra egoten omen zen. “Normalean, neskak dantzan hasten ginen mutilak etortzen zirenean. Batzuetan harri-jasotzaileak ere izaten ziren Oñatzen. Gu zain egoten ginen soinua noiz hasiko, dantzan egiteko gogoia izaten genuen eta. Nahiko nekez hasten ziren soinua astintzen. Denbora gutxi izaten genuen, Aratz Errekatik joaten ginelako, eta guk lehertu arte dantzan egitea nahi izaten genuen”. Atsedena hartzeko beta ere hartzen zuten erromerietan. Orduan limonada edaten zuten, baina jateko ezer gutxi izaten zuten. “Ez zen ezer ere egoten jateko, ezta erroskillarik ere”. Baina, hala ere, izerditan blai eginda dantzan jarraitzen zuten.

Eta ez ziren erromeriatik etxera zuzenean



Herriko agintarien irudi bat. / IMANOL ELIASEN ARTXIBATEGIA

● **ALKATETZARAKO.** Herriko agintari izateko baldintzak kaparetasuna, aberastasun baten jabe izatea eta herri barruan bizitzea ziren, besteak beste

Urteak igarotzean, guztia aldatu zen. Aukeratu ziren alkateratzarako, sekula bilera batera agertu ez zirenak. Gizon ospetsuak seguruenik, baina herritik kanpo bizi zirenak, emazte edo emaztegaririk gabe... Auskalo! Haietako batzuen berri idatziko dugu beste batean.



Erromerian. / JMB

“Zain egoten ginen soinua noiz hasiko, dantzari egiteko gogoia izaten genuen eta”

Jesusa Lesaka



joaten. “Urrestillara iristen ginenean ez genuen izaten urrak erosteko dirurik, baina ezta etxera joateko gogorik ere. Kanean buelta bat eman eta gero etxera joaten ginen afal ordurako”.

Erromeriarik ez bazegoen Urrestilla inguruan, futbola ikustera etortzen ziren Azpeitiara. “Sarrera pezeta bat kostatzen zen eta guk ez genuen dirurik izaten. Orduan Ondarbide atarian egoten ginen, eta partida bukatu baino pixka bat lehenago uzten ziguten sartzen, sarrera ordaindu gabe. Askotan Azpeitira iristeko iluntzen zuen eta etxe aldera joan behar izaten genuen. Gutxitan izaten zen Azpeitiko kaleetan buelta bat emateko astia. Orduan hala zen, iluntzerako etxean”.

Mutiletan egiteko ere izaten zuten parada. “Mutilak gerturatzen zitzaizkigun guri. Igande batzutan ez zen inor gerturatzen baina bestetan, berriz, bat baino gehiago”.

xapo euskerie

Aitor Arruti
Arantzazu Azpillaga
(itzultzaileak)

**EUSKALKIAK
IDATZIZ (IV)**

Villasante euskaltzainburu zenaren iritziz literatura tradizioa euskalkietatik dator, baina euskalki bakoitzeko estandarretik:

● **Euskalki bakoitzean estandarra lortu behar da.** Ez da idazlerik literatura tradizioan bizkaieraz *iñ* (egin) idatzi duenik, ez eta gipuzkeraz *do* (dago) idatzi duenik ere. Idazteak forma osoak erabiltzea eskatzen duen arren, diskutitu liteke *dare*, *dagoz*, *daude* edo besteen artean zein aukeratu, baina ez da hutsetik abiatu behar.

● Leku bakoitzean, euskalki nagusietan behintzat, **literatura tradizionalan badago hartzeko moduko eredu-
ren bat.** Besterik da *martitzen*, *egubakoitz*, *zapatu*, *bariku* eta horrelakoekin zer egin.

● **Deklinabidean euskalki bakoitzak badauzka bere ereduak**, eta ez dugu uste bizkaieran, esaterako, *hauek* idatzi beharrean *honek* idazten bada, mendeetan egin den bezala, ezer gertatzen denik.

Joxe Aranzabal Arrasate *Press*-eko zuzendari ohiak, berriz, hau dio gaiari buruz:

● “Idazle bizkaitarrek idatz dezatela batuaz, **batua euren altxorretik aberastuz**, eta gainerako euskalkietakok ere berdin”.

● **“Guk zer idatzi behar dugu? Ein, iñ, egin... Arrasate Press-en Arrasateko azpi-euskalkian hitz egiten den moduan idazten hasi behar al dugu? Ez dut uste. Euskalkia herri aldizkarietan idaztearen alde egin denean horrela egin da, eta nik ez dut uste hori ondo dagoenik”.**

osasune Julian Bereziartua (medikua)



SABELA PUZTUTA, HAIZEAK EDO GASAK

Edozeinek 200 zentimetro kubiko gas du sabelean eta hesteetan. Batzuetan ondo ez irensteagatik, nitrogenoaren kasuan, eta besteetan, elikagaien hartiduraz, hidrogenoa eta metanoa sortzen direlako.

Gezurra badirudi ere, gas edo haize zenbait arnasketaren bitartez botatzen da. Gehienak hala ere, ondestetik, hestearen bukaerako ataletik kanporatzen dira. Batez beste, egunean, litro bat botatzen dugu, hogeia alditan; gehiago ere sor daiteke, aledunak eta fruta-zukuak hartzen baditugu; hauek, heste lodian edo kolon inguruan fermentatzen baitira.

Ezagutzen dugu, haize hauen bolumena gutxitzeko era bat: bezperatik prestatu potajea edo jan baino zortzi ordu lehenago.

Haizeak ditugunean, sabela puztuta bagenu bezala sentitzen gara, sabela handituko balitz

bezala; ez da sentsazio atsegina, inolaz ere. Ondoez hau, sarritan, hesteen nagitasunagatik, liseriketaren moteltasunagatik izaten da eta ez haizeengatik. Baina ez da ahaztu behar gibelaren edo arearen gutxiegitasunagatik ere irits daitekeela egoera berdina. Korrokaden bitartez ere botatzen ditugu haizeak.

Dena dela, haize horien arrazoi edo jatorri asko ezagutzen dugu. Adibidez, pertsona batzuek intolerantzia dute esneaz, olo-irinez edo piperraz. Beste batzuetan, elikagaiak prestatzeko moduek ere kalte egiten dute.

● **GASAK.** Batez beste, egunean, litro bat botatzen dugu, hogeia alditan; gehiago ere sor daiteke

birziklaye



BOTIKAK JASOTZEKO EDUKIONTZIAK

Apirilaren 1etik aurrera, Euskal Autonomi Erkidegoko farmazi guztietan erabili gabeko botikak edota medikamentuen edukiontzia eta enbasaak jasotzeko kaxa batzuk jarri dira; jakina, Azpeitiko farmazietan ere jarri dira kaxak. Kaxa hauek jartzearen helburuak hauek dira: batetik, edukiontzia birziklatzea da eta, bestetik, etxean eduki eta erabiltzen ez diren medikamentuak bereizita jaso-tzea da. Ekimen hori farmaziaren industria, medikamentuen banatzaileak eta farmaziaren arteko akordioaren fruitua da.

gertuko pasadizue

LAGUN ONAK-EN TABERNA

● **IÑAKI URKIA:** "1956ko irailean, Tomas Iriarte, Lagun Onakeko lehendakari zen, alkate Ignazio Etxeberria eta ni lehendakariorde; Enparantza Nagusian toki bat genduen begiz jota, taberna ipintzeko egokia. Tomasek eskatu egin zion alkateari, herriarena baitzen tokia. Hau zen orain Kutzak bere bulegoak dituen, lehenago Telefónicak zentrala zuena, eta 1953ko urriko uholdearen ondoren apurturik geratu zen lekua, eta onartu egin zion, baietz esan zion".

'Lagun Onak-en 50. urteurrena' liburutik hartua. Lagun Onak Futbol Taldea. 1994. urtea.



Zoruen estaldura: kortxo, moketa, sintasol...
Paper pintatuan aukera handia

**URBISTONDO
MARGOAK**

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Argitarapen honen ediziorik laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker



AMAIÁ TABERNA

Pintxo bereziak eta giro jatorria



Urritizkina, 943 150472 ♦ Erdi kale, 13



Azpeitiko dendariak, zuen ondoan, zuen zerbitzura

CICLOS BENI

Loiolabide Tel. 150629

LARRAÑAGA KIROLAK

Arana, 3 Tel. 811365

ODRIOZOLA HARATEGIA

Arana, 14 Tel. 811015

EGOKI JANARIAK

Barrenetxe, 8 Tel.815490

ZABALA HARATEGIA

Arrabal, 8 Tel.811671

NEREA MERTZERIA

Arrabala Tel.812862

ZOKOA ANDREEN JANTZIA

Arrabala Tel.815056

ARKUPE KIOSKOA

En. Nagusia Tel.815207

AGIRRE OPARIDENDA

Erdi Kale, 1 Tel.811325

FURUNDARENA OINETAKOAK

Erdi Kale, 9 Tel.811143

URIA ALFONBRAK

Erdi Kale, 29 Tel.812337

AMENABAR JANARIAK

Etxe-alai, 3 Tel.150065

SAN SEBASTIAN HARATEGIA

Foru Ibilbidea, 4 Tel.811594

EGAÑA GOZOTEGIA

Goiko Kale, 10 Tel.811885

JAKA JANARIAK

Harzubia, 19 Tel.816549

ANDONI FRUITUDENDA

Harzubia, 29 Tel.812502

AITZAKI KIROLAK

J.A. Agirre, 4 Tel.150738

OTOLA KINKILADENDA

J.A. Agirre, 7 Tel.811366

SANTI LAZKANO KIROLAK

J. Artetxe, 1 Tel.811650

BALENCIAGA

J. Artetxe, 10 Tel.813400

ERROTAUNDI OKINDEGIA

Euskal Herria

MARTZALA OINETAKOAK

Olazko Amaren Plaza

BELOKI HARATEGIA

J. Artetxe, 21 Tel.151392

ARROSPIDE OINETAKOAK

Loiolabide, 1 Tel. 811914

EMAITZ LURRINDENDA

J.A. Artetxe, 11 Tel.813345

ORDULARI BITXIDENDA

J.A. Artetxe, 10 Tel.815244

ARANTXA HAUR JANTZIAK

J.A. Artetxe, 8 Tel.812429

BABESA GAZTE MODA

Urbitearte, 9 Tel.151369

IRIS MERTZERIA

La Salbe, 11 Tel.813298

IRATXO JOSTAILUAK

La Salbe, 24 Tel.150530

ZALDIKO LURRINDENDA

La Salbe, 15 Tel.151275

ICIAR ILEAPAINDEGIA

Loiolabide, 19 Tel.810217

ARADI KIROLAK

Olazko Amaren Pl., 3 Tel.150290

ZURI BELTZ JANTZIAK

Olazko Amaren Pl., 10 Tel.816656

MATXIN ZESTOAK

Pablo VI, 39 Tel.810116

UKABI ORDENAGAILUA

La Salbe, 39 Tel.150101

LUR LORA DENDA

Santiago, 11 Tel.150085

URKE ARGAZKIAK

Urbitearte, 4 Tel.151287

UROLA BIDAI AGENTZIA

Arrabal Tel.150804

M. GRAL . SEGUROS

Pablo VI, 5 Tel.151649

COOP. SUKALDEAK

Arana, 7 Tel.812309

URBISTONDO MARGOAK

La Salbe, 35 Tel.815781

SOINU ELEKTROGAILUAK

Okerra, 11 Zestoa Tel.147938

DUNPI JOSTAILUAK

Erdi kalea, 3 Tel.151890

Foru ibilbidea, 3 Tel.813969



● **AITOR BENGOTXEA.** 1981ean jaio zen, Azpeitian. Arte Ederrak ikasten ari da gaur egun, Leioan (Bizkaia), eta rock talde bateko kide da.

● **KEPA URBIETA.** 1981ean jaio zen, Azpeitian. Lanbide Heziketako azkeneko urtea ari da egiten, eta orain Londresen dago, ikasten.

● **IGOR ARANBARRI.** 1981ean jaio zen hau ere, Azpeitian. Igor Aranbarri ere ikasten ari da oraindik, Humanitateak eta Enpresa.

HIRU GAZTE 'DIAPOETA' ZUZENEAN

'Diapoesia: ikusteko poemak eta entzuteko irudiak' poesia errezitaldia prestatu dute Aranbarrik, Bengoetxeak eta Urbietak

[ban Arregi]

Martxoan aurkeztu zuten Aitor Bengoetxeak, Igor Aranbarrik eta Kepa Urbietak *Diapoesia: ikusteko poemak eta entzuteko irudiak* poesia errezitaldia, Orkatz Kultur Elkartearen, Uztarría Kultur Koordinatzailearen antolatutako I. Kulturaldian. Ondoren beste bitan errezitatu dituzte poemak, eta datozen hilabeteetarako ere hitzordu

batzuk egin dituzte —Kepa Urbietak Londrestik etortzen denerako, han baitago ikasten, ekaina bukatu arte—.

Azpeitiarrak dira hirurak, koadrila berekoak, eta hirurak 1981. urtekoak. Duela lau-pabost urte hasi ziren poesia idazten. Baina idatzitakoa erakutsi egin nahi zuten, kalera atera, eta horregatik prestatu dute *Diapoesia* emanaldia.

Izenak berak dioen moduan, diapositiba eta poesia nahasten ditu emanaldiak. Hiru

gazteek urteetan idatzitako olerkiak bildu dituzte, halako lotura bat eman denei, eta kontu handiarekin aukeratutako musikarekin eta argazkiekin osatu dute emanaldia. Igor Aranbarrik dioenez, "emanaldian bada lotura bat diapositiben, musikaren eta poesiararen artean, baina lotura hori oso zabal ulertu behar da. Azken finean, egunerokoa sar daitekeen dena bildu dugu".

Diapoesia emanaldian, eszenografia-eta ondo zaindu dituzte, eta errezitaldiari mugimendu handia eman diote. Hori prestatzen denbora pasatu dute, emaitzean bertan nabari denez. Aitor Bengoetxearen arabera, "poesia astun samarra suertatu daiteke, eta, horregatik, zerbait dinamikoa egin nahi izan dugu".

Ez da oso ohikoa hiru azpeitiarrak prestatu dutena. Diotenez, ordea, poesia idazten duen gazte asko dago Euskal Herrian, eta Azpeitian bertan ere bai. "Poesia oso unibertsala da, jende askok idazten du, baina idatzitakoa kalera ateratzeran sortzen dira arazoak". Diotenez, poesia oso garrantzitsua da eurentzat. "Poesia oso aberasgarria da. Gainera, zeinek irakurtzen duen, esanahia ere aldatzen doa, eta hori aberatsa da", dio Kepa Urbietak.

Jendearen aldetik-eta "oso harrera ona" jaso dute. Idazten segituko dute, eta, ahal den neurrian, idatzitakoa kalera ateratzen. "Poesia, azken finean, bakoitzak nahi duena adierazteko bitarteko bat delako".



GEURE BURUARI IDATZITAKO GUTUNA

Noiztik ote gaude denok espero dugun eskutitz hori hel dakigun zain, itxaroten. Baina iritsiko bazaigu, norbaitek nonbaiten idatzi ere egin behar du.

Uste dut poesia eta artea munduan izateko erari buruz galdetzeko daudela funtsean. Bakoitzak bere garaitik, bere hizkuntzatik egin behar ditu bere galderak, bere kezka propioak adierazi. Horixe da unibertsal edo mundutar izateko bermea nire iritiz. Bestela, bestek formulatutako galderak egitera kondenatuta biziko gara beti. Eta gizakiak, nor izango bada, behar du ahots bat izan bere aldian.

Batzuetan, hala ere, besteren hitzetan eta ahotsean geure hitzak eta ahotsa sumatzen ditugu. Guk bizi izandakoa, pentsatutakoa, hunkitu gaituzten kontuak beste norbaiten ahotik entzungo ditugu. Orduan hunkitu egiten gara. Eta horretan dago, hein batean, komunitate bateko kide izatearen indarra, zerbaitetan bat egitearena, *gu* izatearena une batez bada ere. Entzule-ikusle eta esatailearen artekoak badaki indar hori ernarazten.

Gogotik nekez joango zaigu martxoko arratsalde hura Orkatztavernan bildu ginenoi. Poesiak balkoi eder bat zabaldu zuen Azpeitian eta han agertutako itxaropenak kutsatu egin gintuen.

Diapoesia ikuskaria gertatu ziguten hiru idazlek, eta hitza, argia eta musika gozamenerako, gogoetarako, sentimenduen txindurriei gure barrunbeetarako bidea erakusteko tresna direla jarri zuten agerian. Hitzarekin, musikarekin eta argiarekin konbinazio ezberdinak, esateko era berriak bilatzen eta osatzen ahalegintzen den inor badagoela gurean oraindik. Hor direla geure buruari gutunak idazten dizkietenak. Eta hori bizirik gauden seinale garbia da. Talentua eta lana batera datozenean emaitza txundigarriak espero genitzakeela ikusi genuen berriro.

Lozorroaren eta satisfazio nagia kontrako antidotoa da artea. Geure kezka, grina eta ezinen aurrean jartzen gaituen ispilua. *Diapoesia* horretan saiatzen da. Abiapuntu bat da, inora iristeko

nahitaezko baldintza. Gutuna bota egin behar baita inora egingo badu.

Diseinu efikaza, sinplea eta erakargarria du. Eskenatokiaren erabilera dinamikoa egiten dute Igor Aranbarrik, Aitor Bengoetxeak eta Kepa Urbietak, poemak irakurri ahala poetek mugimendu oso sinpleen bidez ikuslegoa tramaren jokoa sartzen dute. Atrilen aurreko argiak ikusleari norabidea erakusten dioten faroak dira, diapositibetan irudiaren iradokitze indarra testuen lagungarri dator, musika bezala.

Egitura trinkorik ez, baina hiru ahotsak balkoi batetik mintzo dira maitasunari buruz, gizarte arazoei buruz, gaur egungo hiru idazleren kezkez. Gordean eduki ezin direnak entzuteko eran esaten dituzte.

Poesia geure buruari gutuna idatz diezaiozun konbitea da, edo besteek idatzitakoak entzun eta irakurtzekoa. Askori eskutitz horien esperoan, idazten, entzuten eta txatalak biltzen joango zaio bizi osoa.

Erne gaude eta bila gabilta, gutxien uste dugunean irits daitezke eta horren premiazko ditugun hitzak. Batzuk aurrerapen txiki bat Orkatzen hartu genuen. Eta pozik gaude. ●

Daukagun **kultura maite** dugulako,
euskal eskola nazionalaren bidetik
mundu zabalera.

ikasberri

A Z P E I T I K O I K A S T O L A

loiola etorbidea, 26 - 20730 azpeitia - tel 943 15 12 46 - faxa 943 15 17 76 - ikasberri@ikastola.net

telefono zenbakiyek

ERAKUNDEAK - TOKI	
PUBLIKOAK	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturriziki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48
OSASUNA	
Anbulategia	81 51 00
Anbulategia-larrialdiak	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA-Donostia	46 46 22
SOS Deiak	112
KOMUNIKABIDEAK	
Uztarrria herri aldizkaria	15 03 58
Azpeitian Zer?	81 11 00
Deia (berriemailea)	72 57 75
DV (berriemailea)	15 09 94
Egunkaria	943-30 02 22
Gara (Herriak Saila)	943-31 69 99
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943-01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
ALDERDI POLITIKOAK	
EAJ - PNV	81 55 70
Batasuna	15 12 15
EA	81 00 11
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28
IKASTETXEAK	
Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesusen Alabak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola BHI	15 02 28
KULTURA - EUSKARA	
Baite Euskara Elkarteak [oraindik ez]	
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89

Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarrria Kultur Koordi.	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40
Kontseilua	943-59 12 00
BESTERIK	
UGLE (Urolako gay-lesbia.)	273 posta
Euskaltel-informazioa	900-84 00 65
Telefónica-informazioa	1003

farmazিয়েক গায়েজ

MAIATZAK 1-5	
Gisasola (Azkoitia).	85 12 35
MAIATZAK 6-11-12-23	
Beristain.	81 19 49
MAIATZAK 7-24	
Etxebeite.	81 59 74
MAIATZAK 8-20-25-26	
Garcia.	81 12 74
MAIATZAK 9-21	
Zulaika.	15 03 34
MAIATZAK 10-22	
Aseginolaza.	81 13 50
MAIATZAK 13-19	
Ruiz (Azkoitia).	85 19 66

গুণে পাবলিকের িরকিতে

UDALETXEA	
Astegunak:	9:00-13:30
Larunbatak:	9:00-13:00
IXPIXIOA	
Egun osoz irekita	
IGERILEKUA	
Astelehenak:	14:00-21:00
Beste astegunak:	7:00-21:00
Larunbatak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
Igandeak:	9:00-13:00
Kanpokoak:	Ekaina arte itxita
KIROLDEGIA	
Astelehenak:	9:00-13:00, 15:00-21:00
Beste astegunak:	15:00-21:00
Larunbatak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
UDAL LIBURUTEGIA	
Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
Aste Santuan, udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan:	astegunetan, 9:00-13:00

autobusen ordutegiyeك

JOATEKO	
AZPEITIA-ZESTOA-DONOSTIA	
Astegunak:	6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2)
Larunbatak eta abuztuko astegunak:	7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15
Igandeak eta jaiegunak:	15:10, 19:15
Enpresa:	La Guipuzcoana
Oharrak:	1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik
AZPEITIA-EIBAR-BILBO	
Astegunak:	6:30, 13:00, 18:30
Larunbatak:	9:30, 14:30, 18:30
Igandeak eta jaiegunak:	9:30, 19:30
Enpresa:	Pesa
AZPEITIA-EIBAR-BILBO	
Astegunak:	6:35, 13:30
Enpresa:	Piper Unibertsitate Elkarteak
AZPEITIA-AZKOITIA	
Astegunak:	6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25
Asteburuak eta jaiegunak:	7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40
Enpresa:	EuskoTren
AZPEITIA-ZESTOA-ZUMAIA	
Astegunak:	6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10
Asteburuak eta jaiegunak:	7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05
Enpresa:	EuskoTren
Oharrak:	1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarna-zabaldik pasatzen da
AZPEITIA-ZESTOA-ZARAUZ	
Astegunak:	6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10
Asteburuak eta jaiegunak:	15:40, 18:10, 20:10
Enpresa:	EuskoTren
AZPEITIA-ZUMARRAGA (hospitalka)	
Astegunak:	6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25
Asteburuak eta jaiegunak:	7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40
Enpresa:	EuskoTren
AZPEITIA-ERREZIL-TOLOSA	
Astegunak:	6:55, 13:55
Asteburuak eta jaiegunak:	6:55, 11:10
Enpresa:	EuskoTren
GARRAIO ENPRESEN EDO ELKARTEEN TELEFONO ZENBAKIAK	
Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59

ITZULTZEKO	
DONOSTIA-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30
Larunbatak eta abuztuko astegunak:	8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00
Igandeak eta jaiegunak:	18:00, 20:00
Enpresa:	La Guipuzcoana
Oharrak:	1: Eskola egunetan 'Este'-tik pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik
BILBO-EIBAR-AZPEITIA	
Astegunak:	10:30, 14:30, 21:00
Larunbatak:	9:30, 14:30, 18:30
Igandeak eta jaiegunak:	9:30, 12:30, 21:00
Enpresa:	Pesa
LEIOA-BILBO-AZPEITIA	
Astegunak:	14:00, 20:00
Enpresa:	Piper Unibertsitate Elkarteak
AZKOITIA-AZPEITIA	
Astegunak:	6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00
Asteburuak eta jaiegunak:	6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55
Enpresa:	EuskoTren
ZUMAIA-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00
Asteburuak eta jaiegunak:	6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15
Enpresa:	EuskoTren
Oharrak:	1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da
ZARAUZ-ZESTOA-AZPEITIA	
Astegunak:	7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45
Asteburuak eta jaiegunak:	16:30, 19:00, 21:00
Enpresa:	EuskoTren
ZUMARRAGA (hospitalka)-AZPEITIA	
Astegunak:	7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30
Asteburuak eta jaiegunak:	8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45
Enpresa:	EuskoTren
TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA	
Astegunak:	9:30, 18:30
Asteburuak eta jaiegunak:	9:30, 12:00
Enpresa:	EuskoTren
TOLOSA-ERREZIL-AZPEITIA	
Astegunak:	9:30, 18:30
Asteburuak eta jaiegunak:	9:30, 12:00
Enpresa:	EuskoTren

Azpeitiko merkatu txikiye

1. ETXEBIZITZAK

- 1.1. Saldu
- 1.2. Erosi
- 1.3. Errentan eman
- 1.4. Errentan hartu
- 1.5. Etxeak osatu
- 1.6. Bestelakoak

2. LOKALAK

- 2.1. Saldu

2.2. Erosi

- 2.3. Errentan eman
- 2.4. Errentan hartu
- 2.5. Bestelakoak

3. GARAJEAK

- 3.1. Saldu
- 3.2. Erosi
- 3.3. Errentan eman
- 3.4. Errentan hartu

4. LANA

- 4.1. Eskaintza
- 4.2. Eskaera
- 4.3. Bestelakoak

5. MOTORRA

- 5.1. Saldu
- 5.2. Erosi
- 5.3. Errentan
- 5.4. Bestelakoak

6. BIDAIAK

- 6.1. Europa
- 6.2. Mundua

7. DENETARIK

- 7.1. Saldu
- 7.2. Erosi
- 7.3. Errentan eman
- 7.4. Errentan hartu
- 7.5. Bestelakoak

deitu

15 03 58

e-maila:

uztarria@topagunea.com

• Partikularren iragarkiak doan dira. Gainerakoek, lerroko euro bat ordaindu beharko dute.

• Uztarriak ez du iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

• Aldaketak adierazi Uztarriari.

1. ETXEBIZITZAK

1.1. SALDU

• **Eliz kalea.** Eraikitzeaz dauden etxebizitzak. Egongela, bi-hiru logela, sukaldea, jangela, bi bainugela eta traste lekua. Telefonoak: 943 - 89 40 84 edo 636 97 43 20.

2. LOKALAK

2.1. SALDU

• **Plaza Nagusia.** Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

• **Julian Elorza auzoa.** Telefonoa: 943 - 15 05 10.

• **Erdi kalea.** Telefonoa: 943 - 81 49 87.

• **Urbartarte.** Telefonoa: 609 37 87 31.

• **Urrestillara bidean.** 920 metro karratuko lokala saltzen da. Egoera onean. Telefonoa: 943 - 43 34 96.

2.3. ERRENTAN EMAN

• **Olazko Amaren Plaza.** Telefonoak: 943 - 15 08 72 edo 666 52 59 45.

• **Iñaki Azpiazua kalea.** Tele-

fonoak: 943 - 81 18 00 edo 943 - 81 02 94.

• **Enparantza Nagusia.**

Lehen pisua, arkupetan. Telefonoa: 943 - 46 29 31.

• **Urbartarte.** Telefonoa: 609 37 87 31.

• **Juan XXIII.a.** 7. zenbakian. Telefonoak: 943 - 81 22 85 edo 943 - 81 28 97.

• **Landeta.** Telefonoa: 943 - 81 10 77.

• **Landeta.** Asepeyo-ren ondoan. Telefonoak: 943 - 81 17 59.

3. GARAJEAK

3.1. SALDU

• **Garmendi.** 11. zenbakian. Telefono zenbakia: 943 - 81 04 45.

• **Arana Goikoa.** 5. zenbakian. Telefonoa: 943 - 58 10 42.

• **Santutxo.** 10. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 07 29.

3.3. ERRENTAN EMAN

• **Salbe auzoa.** 6. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 29 15.

• **Jose Artetxe.** Telefonoa: 943 - 15 75 25.

• **Foru Ibilbidea.** 2. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 03 25.

• **Juan XXIII.a.** 3. zenbakian. Telefonoa: 943 - 81 11 56.

• **Arana Goikoa.** Telefonoa: 943 - 81 34 95.

4. LANA

4.1. ESKAINTZA

• **Galderagilea.** Azkoitian. Urtebeteko kontratua. Azpeitia edo Azkoitian bizi izatea eskatzen da. www.langai.net (69818/3 eskaintza).

• **Banatzaillea.** Banatzaille gazte bat behar da. Telefonoa: 677 80 40 28.

• **Automaten programatzaillea.** Azkoitian. Sei hilabeteko kontratua. 23 urtetik gorakoa izatea eta FP II edo maestria industrialeko ikasketak eskatzen dira. www.langai.net (75646/4 eskaintza).

4.2. ESKAERA

• **Baserrian.** Nekazal gunean lan egiteko gazte bat eskaintzen da. 27 urte. Telefonoa: 660 19 75 37.

• **Etxebizitza.** Salgai Soreasun. Hiru logela, bainugela, egongela eta traste lekua. Oso eguzkitsua. 81.337 euro (13.500.000 pezeta). Telefono zenbakiak: 943 - 151285 edo 943 - 812299.

• **Itzultzailea.** Eskatzen du komunikabide batek. Euskal filologian lizentziatua edo itzulpengintzan esperimentzia frogagarria duena. Microsoft Office eta internet menderatzea. Kurrikulumak bidali honako helbidera: 1503 posta kutxatila. Donostia. Erreferentzia: Itzultzailea.

• **Umeak zaintzeko.** Arratsaldean umeak zaintzeko 18 urteko neska bat eskaintzen da. Telefonoa: 943 - 151564 (Laida).

5. MOTORRA

5.1. SALDU

• **Autoa.** Ford Orion. SS-AJ. 100.000 kilometro ditu. Egoera onean dago. Telefonoa: 943 - 81 50 48.

7. DENETARIK

7.1. SALDU

• **Tabernako materiala.** Tabernako materiala salgai, baldintza onean (kafetera, izotz makina...) Telefonoa: 650 76 77 88.

7.2. EROSI

• **Txanponak.** Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Telefonoa: 639 82 27 90. Pello.

• **Egurra.** Botatako egurra, ari-tza, gaztaina, pinua, ohol zaharra, urritza enborrak eta abar, erosiko nituzke. Telefonoak: 943 - 81 34 74 edo 943 - 81 45 70.



Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es



ORKATZ KULTUR ELKARTEA

Erdi Kalea, 24



AIZPURU
AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

GONS - MAGKAR



estetikako
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



argazkilaye: Uztarria

Gazta, egunetako eta orduetako lana

● **ELOSIAGA GAZTA.** Elosiaga auzoan du ikui-lua, ardiak eta gaztategia Abel Seguroa artzai gazteak. Gaztategia zuria eta garbi-garbia, aruek hala agintzen baitute. Ana emazteak eta Albertok ere jarduten dute ardiekin lanean.

● **GAZTAGINTZA.** Abendutik uztaila bitartean, bi egunetik behin egiten dute *Elosiaga* gazta. Goizeko zortzietan ekiten diote lanari eta arratsaldeko bostak jotzen dizkie lana bukatzera-ko, bukatu eta dena txukuntzeari ekiten baitie.



4



1. IKUILUA.

8:00etan ekiten diote lanari. Ardi guztiak ikuiluan prest izaten dira.

2. ARKUMEEKIN.

Arkumeak dituzten ardiak, aparte izaten dira ikuiluan. Hauek ez dira jezten.

3. 'TIOBIBOAN'.

Ardiak jezteko makinak *tiobibo* baten antza du. Ardiak igo eta pentsua jaten ari diren bitartean, makinak jezten ditu.

4. JEZTERA.


Ardiak *tiobibo*-rako bidean, ezkerretik igo eta eskuinetik berriro ikuilura.

5. ARDI JEZTEN.



Tiobibora igotzen direnean batek jezteko prest jarriko ditu ardiak, eta besteak bueltan datozenean errapeetako tutuak kenduko dizkio; Abel horretan ari da.

6. TEMPERATURA.

Hodiek gaztandegira garraiatuko dute esnea. Lehenengo hoztu eta gero berotu egingo da esnea.




5



6



7



8



9

1. MOLDEETARA.

Temperatura egokian berotu, gatzagiarekin gogortu esnea eta gazura kendu ondoren. Gazta freskoa dago. Hau gero moztu eta moldeetan sartu behar da.

2. PRENTSARA.

Moldeetan sartu eta prentsan jarriko dira gaztak.

3. HOZKAILUAN.

Uretan eta gatzetan edukiko dira ondoren azala egiteko. Eta handik hozkailura, hemen bi hilabete eduki eta jateko prest izango da gazta.



AUTOAK ETA TRISTURAK


GAIA.

Zertarako
arauak,
komeni
zaigunean
erabiltzen
baditugu?
Nora begiratu,
hara horren
froga. Tristeia!

"Etorbide erdian gaude, ez bazter batean! Nola jarriko ditugu ba triangeluak?". *Munipak* bereari eutsi zion: "Bai, ulertzen dut baina ezin dugu ezer egin. Deitu aseguruari". Eta telefonoa eskegi zuen. Primeran. Alde positiboa hartu beharko diogu. Hitza behintzat bete zuen: ez zuten hatz txikiena ere mugitu.

Handik atera ginen, eta onik, baina ez *munipen* laguntzari esker. Barruan dudan ondoeza, ordea, hori ez da oraindik atera. Litekeena da haien egin-kizunen barruan ez egotea laguntza mota zehatz hura eskaintzea. Konforme. Baina edonola ere ezin zuen haien zereginen oso urrun egon, eta istripuren bat gertatzeko arriskua zegoen. Zergatik gara giza-kiok —gaitza guztiona baita— hain zorrotzak batzuetan arauekin? Alferkeria? Hasierako lagunak aipatzen zuen bizi-tristura?

Nire hurrengo autoak, gustuak gustu, kolore bizi-
nak izatea nahi dut. Badaezpada. Ez dut konturatu
gabe itzalita amaitu nahi!



Gero eta gizarte tristeagoa dugu. Hori ziurta-
tzen zidan aurrekoan lagun batek, eta era-
biltzen zuen argudioa ez zen guztiz kaska-
rra. Astegunetan asteburuaren zain egoten gara,
baina asteburua iritsi eta, nahi baino gehiagotan,
zer egin ez dakigula egoten gara. Konpondu
nahian, adibidez, hipermerkatuetara jotzen dugu ez
gutxitan, ez zerbait erosi behar dugulako, baizik eta
denbora-pasa gisa. Edo, hobeto esanda, nola
xahutu ez dakigun denbora lehenbailehen igaro da-
din. Zer egingo diogu. Kontua da —zehaztu zidan
lagunak—, auto mordoa dagoela hiper horien apar-
kalekuetan, eta kezka garria den joera omen dute:
gero eta kolore itzaliagoak dituzte. Aurpegia arima-
ren isla baldin bada, autoaren kolorea ere ba omen
dugu horren adierazgarri. To. Baina arrautza eta
oiloaren auzian, ez jakin: itzalita gaudelako erosten
ditugu kolore itzaliak, edo koloreek beraiek itzaltzen
gaituzte gu?

Nolanahi ere, eta autoa hizpide hartuta, beste
arazo bat mahaigaineratu nahiko nuke. Aurreko
batean Donostiara joan ginen hiru lagun. Nire autoa
erabili genuen —zaharra eta sobera *bihurria*, egia
esateko—. Halako batean, Donostiako sarreran,
pot-pot-pot isil antzeko bat ateratzen hasi zen eta
indarrak gabe gelditu zen. Kaput. Joño. Zeraman
abiadura aprobetxatuz nola edo hala baztertzen
saiaitu nintzen. Ez nuen lortu. Azken pot-pot bat egi-
nez gelditu zen, Anoeta estadiorako bidean (Madril
etorbidean), eta bide erdi-erdian. Madarikatu hark
ez zuen berriro martxan jarri nahi.

Jodel!

Autoa bultzatzea geneukan, hori bururatu zitzaigun lehendabizi. Bultzatu bai, baina nora? Han inguru hurbilean edonon zen oztopo (bazterrekoa autobus-bidea zen, han ezin utzi). Beste txofer guztiak muturbeltz. Normala. Oztopo —eta arrisku!— ginen. Konponbide magikoa bururatu zitzaigun: udaltzaingoari deitu. *Munipak* etorriko ziren azkarren, eta handik aterako gintuzten. Seguru. Logikoa iruditu zitzaigun laguntza emango zigutela, autoa handik lehenbailehen kentzeko behintzat. Egingo genituen gero egin beharrekoak.

Informaziora deitu eta Donostiako Udaltzaingoaren telefonoa lortu genuen: "Begira, kotxea Madril etorbide erdian geratu zaigu. Baztertzen saiatu gara, baina ezin. Eta zirkulazioa oztopatzen ari gara. Laguntzerik bai?". *Munipak*, serio-serio, ezin zuela ezer egin. Triangeluak jartzeko eta aseguruari deitzeko. *Kaguenlaletxe*. Errepikatu egin nion:

As.	At.	Az.	Os.	Os.	La.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

MAIATZAK 4 (larunbata)

- **ARETO FUTBOLA.**
Bigarren A Maila: Jostaldi kirolak-C.C.Ext. La Bellota. 16:30ean. Kiroldegian.
- **FUTBOLA.**
Preferentea: Lagun Onak-Aloña Mendi. 17:00etan. Garmendipen.

MAIATZAK 5 (igandea)

- **MENDIA.**
Goiz ibilaldia Kakutera Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 09:00etan. Plazan.
- **DANTZA.**
Itsasi Dantza Taldearen 25. urteurrena ospatuz, taldeko musikarien eta dantzarien ekitaldi berezia. Asteburu Musikalaken barruan. 13:00etan. Plazan.

MAIATZAK 6 (astelehena)

- **ARGAZKILARITZA.**
Juan Armentiairen argazkien erakusketa zabalduko da. Maiatzaren 22a arte zabalik izango da Antxieta Etxean. Erakusketaren ordutegia, astegunetan 18:00etatik 20:00-etara izango da.

MAIATZAK 8 (asteazkena)

- **AITONENA.**
Bilbora irteera antolatu du Aitonena Zuzendaritza Batzordeak. Goiza Bilbon pasatuko dute eta eguerdi aldera Elorriora joango dira. Han Elorrio Hotelean bazkaldu eta arratsalde-pasa Bergaran egingo dute. Irteera 9:00etan izango da, plazan.
- **ZAPO TXOKO.**
Pultsera eta lepokoen lantegia, buztin zuria eta perlak. 13 urtetik 30 urte arteko gazteei zuzendua. Lantegiaren hasiera eguna. Prezioa: Hiru euro. 17:30etatik 19:00etara. Zapo Txokon.

MAIATZAK 10 (ostirala)

- **GRAFFITI TAILERRA.**
Zapo Txoko Gazteguneak antolatuta graffiti tailerra hasiko. Prezioa: Hiru euro. 17:30etatik 19:30etara. Zapo Txokon.

MAIATZAK 11 (larunbata)

- **MUSIKA.**
Kitarrak, esku soinua, panderoa eta perkusio taldeak, Amaia Garmendiak zuzenduta. Asteburu Musikalaken barruan. 19:30ean. Udaletxeko arkupetan.

MAIATZAK 12 (igandea)

- **MUSIKA.**
Ataitz Burladako Txistulari

Taldearen emanaldia. Asteburu Musikalaken barruan. 19:30ean. Plazan.

MAIATZAK 18 (larunbata)

- **ARETO FUTBOLA.**
Bigarren A Maila: Jostaldi kirolak-Bilken eredu. 16:30ean. Kiroldegian.
- **FUTBOLA.**
Preferentea: Lagun Onak-Aretxabaleta. 17:00etan. Garmendipen.

MAIATZAK 19 (igandea)

- **MENDIA.**
Egun guztirako irteera Txalintxora Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 9:00etan. Plazan.
- **MUSIKA.**
Azkoitiko Musika Bandaren kalejira eta kontzertua. Asteburu Musikalak egitarauaren barruan. 19:30ean. Udaletxeko arkupetan.

MAIATZAK 21 (asteartea)

- **MENDI PROIEKZIOA.**
Lagun Onak M.B.k antolatuta. Gaia: Meru-Sivling 2001. India. Hizlaria: Igor Mendizabal. 20:30ean. Enparan Dorretxean.

MAIATZAK 22 (asteazkena)

- **MENDI PROIEKZIOA.**
Lagun Onak M.B.k antolatuta. Gaia: Ameriketako Hiru Handiak (Ojos del Salado

6.864 m., Pissis 6.882 m. eta Akokangua 6.959 m.). Hizlaria: Felipe Uriarte. 20:30ean. Enparan Dorretxean.

MAIATZAK 23 (osteguna)

- **MENDI PROIEKZIOA.**
Lagun Onak M.B.k antolatuta. Gaia: Transeuropa 2001 (Cabo Norte-Tarifa). Hizlaria: Patxi Ibarbia. 20:30ean. Enparan Dorretxean.

MAIATZAK 25 (larunbata)

- **ELKARTASUN EGUNA.**
Elkartasun Eguna, *Elkartasunez, Euskal Presoak Herri-
ra!* Iemapean. Herri krosa 10:30ean. Argazki erraldoia 11:45ean. Herri kirolak, bertsolariak, trikitilariak eta dantzariak 12:00etan. Goiz osoan, sagardoa eta talo eta pintxo postuak egongo dira plazan. Baita erakusketa, informazio mahaiak eta materialen salmenta ere. Herri bazkaria 14:00etan, azoka plazan. Kale animazioa, arratsaldean. Gaztelu puzgarriak 16:00etatik aurrera eta buruhandiak 17:30ean, Olazko Amaren Plazan. Manifestazio isila, 19:30ean, plazatik irten da. Kontzertua, 22:30ean.
- **MUSIKA.**
Izarraitz Txistulari Taldearen kale animazioa, Garikoitz Mendizabal zuzendari lane-tan dela. Parte hartuko dutenak, Jose Mari Sagarzazu, Garikoitz Mendizabal bera,



Euskal Herria,34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdia:
943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Josele Artetxe. 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo. 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA



J A T E T X E A

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tfnua.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62




Goko - Kale, 4 - Tfnua. 81 13 49

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira



81 53 35

Amenabar
D E N D A

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

Ilazki Albizuri

Azpeitiko Txolarteko begiralea

«Kolektibo bati aisialdi bat eskaintzea da Txolarteen helburua»

Nerea Uranga / Ilazki Albizurik hamar urte daramatza Azpeitiko Txolarte Taldean bolondres begirale lanetan. Maiatzaren 11n, Gipuzkoako Txolarte taldeak bilduko dira Azpeitian, aurtengo Txolarte Eguna ospatzeko.

• Nola ospatuko duzue Txolarte Eguna?

Egun horretan 400 bat lagun elkartuko gara. Egun osoan zehar ekintza desberdinak egingo ditugu egun hori ospatzeko. Ongi-etorri ekitaldia Izarraitz Pilotalekuan egingo dugu: txalaparta, aureskua, malabarak, karaokea eta Karibeko dantzen emanaldia izango da. Txaranga batekin Izarraitzik plazara joango gara. Bazkaltzeko, berriz, azoka-plazan elkartuko gara. Bakoitzak bere otartekoa eramango dugu bazkaltzeko. Eta bazkalondoren, 16:00etatik aurrera bi orduko dantzaldia izango dugu Ezkerretegin.

• Zein da Txolarteen funtzioa?

Funtzioa eta helburua, kolektibo bati aisialdi bat eskaintzea da. Euren artean planak egitea; hau da, gurasoeekin-eta egin ezin dituzten planak egitea. Urte osorako egitarau bat eginda izaten dugu, nahiz eta azkenean haien nahietara murriztu. Beti ere integrazioarekin lotuta, eta bultzada bat emanez eta kari-dadeko irudia kenduz. Gai dira euren kasa gauza asko egiteko, eta hori sustatzen saiatzen gara, haien arteko komunikazioa landuz eta, azken batean, ondo pasatuz.



NEREA URANGA

• Azpeitiko Txolarte zenbat lagunek osatzen duzue?

30 bat lagun ibiltzen gara, eta zortzi begirale gabiltza. Txolarteko kideen adinaren aldea handia da, eta gauzak antolatzerakoan beraien gaitasuna zein den ere kontuan hartu behar izaten da. Begirale bezala aritzeko, jende gazteari deialdi bat egingo nioke: animatzeko etortzera. Pertsona hauek eta mundu hau gertutik ezagutzea oso interesgarria da, guri ere ideia berriak jasotzea komeni baitzaigu.

• Atzegiren kanpaina berri bat ere oraintxe bukatu da.

Horrelako kanpainen bi helburu dituzte: batetik, kolektibo bat hor dagoela aldarrikatzea eta normalitate bat transmititzea, eta, bestetik, Atzegi talde bezala ezagutzera ematea.

• **EKITALDIA:** Txolarte Eguna • **EGUNA:** Maiatzak 11 (larunbata)

• **ORDUA:** 11:30etik aurrera egun osoan zehar • **TOKIA:** Izarraitz pilotalekua, Azoka plaza eta Ezkerretegi Dantzalekua • **ANTOLATZAILEA:** Txolarte.

Gorka Zabaleta, lagoba As-tiazaran eta Xabin Zulaika izango dira. Asteburu Musika-lak egitarauaren barruan antolatu da. 19:30ean hasiko da eta herriko kaleetan ibiliko dira.

MAIATZAK 26 (igandea)

• MENDIA.

Xoxoteko Eguna. Xoxotera egun guztirako mendi irteera Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. Irteera 9:00etan.

Plazan. 12:00etan Meza izango da. 13:00etan urtean zehar mendian ibili diren umeentzat dominak banatuko dituzte Lagun Onak M.B.-koek, eta ondoren erromeria izango da.

Zeun ekitaldiak-eta Uztarriara helarazteko aukerak:

- Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ez-kerra (Azpeitia)
- 943 - 15 03 58 telefonoa / faxa
- uztarria@topagunea.com

TABERNA



Telfnoa: 943 151086

Enparantza Nagusia

HITZEIN
HITZEIN
HITZEIN

Izaskun Lizarralde

LOGOPEDIA

630 133 286 - 943 157 417
Urbilarte 3. auzunea 20730 AZPEITIA




ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Egin publizitatea

uztarria.n

943-150358



IRAURGI
IKASTETXEA

Bigarren hezkuntzako ikastetxea - AZPEITIA

Batxilergorako izen-emateko epea:

Maiatzaren 2tik 10ra

Gure lana, **HEZKUNTZA**
EUSKARA, gure hizkuntza


Etxe Alai, 18 - Azpeitia ☎ 943 81 02 10 - Faxa: 943 15 15 52

E-mail: iikastetxea@planalfa.es

Nekane Zelaia

Ikasle Portugalen

Coimbrai begiratue



- Portugalen dao, mendebaldien.
- Lisboatik 200 kilometroa dao.
- 160 mille lagun bizi die bertan; hayetatik 30 mille ikasleiek die.
- Euskal Herritik 800 kilometroa dao; trenien hamabi ordure.
- Portugesa da hizkuntza nagusiye.
- Komertziyuen eiten debe geyenak lan.
- Erijiyue: katolikuek geyenak, eta protestantiek.

“Klasiek emateko modue hobio den hemengo eskolakue”



NEKANE ZELAI

Zazpi hilabete die Erasmus bekien bidez, Nekane Zelaia arkitekturako ikasle Portugalea jun zana ikastea. Han, Arkitekturako maila bat eiten ai da.

• Nolako herriye da Coimbra?

Coimbra Portugaleko herrixka bat den, Unibertsitaten inguruen osateko herriye, hain zuzen. Hasieran, zahar itxura haundiye zauken, baño badin bere graziye. Herri osue aldapaz beteta zion, eozein lekuta juteko aldapa mordo bat iyo ta jeitsi ber ditun.

• Ikasketa mundue nola zion hor?

Donostiko eskoliek konparaute ondo. Eskolie (unibersidadie), nahiko eskasa ta zaharra den. Adibide bat jartzekotan esango ninenan, eskolan berogailuik ez daola. Hotza eiten dun egunetan klasea jun ta hotzak izoztuta gelditzen haiz. Klasien eskularruek jantzita eon ber iza-ten dineu batzuetan. Unibersidadeko sistemiei buruz esan, klasiek emateko modue hobie dala hemengo eskolakue. Donostiyan, esateako, klase praktikuek bakoitzek bere kasa etxien ein ber iza-ten ditxin. Alde hortatik, behintzet, hemen hobeto antolaute daola esango ninenan.

• Asteko egun bat nolakue izeten den?

Goizez klasea juten naun. Klasiek portugesen puntualidadeiekin hasten ditun; ordu erdiye beranduo, alegiye. Geo, bazkaltzen kantinatan gelditzen gaitun. Hemen bazkaltzie oso merkie den, 1,60 euro. Arratsaldie lanak eiten pasatzen dineu. Eta iluntzien, zinea eo hemengo lagunen baten etxea juten gaitun afaltzea.

• Ta gero juerga?

Juerga eiteko herri ona den. Hemen eozein egunetan zion juerga eiteko aukerie. Ikasle herri bat izenda, egunero zion giro ona, baita jai iluntzetan eo astelehenetan'e.

• Azpeitiye faltan botatzen al den?

Bai, asko gañea. Honea etorritakuen hemengo giroa ohitzen haiz, baño hala're asko akordatzen haiz horkuekin. San-sebastianetan hemen gure danborradie partikularra antolau ginenan.

Nerea Aranburu


HANGO JENDIE. «Donostiko unibersidadien Erasmuseko ikasleiek etortzen dienien, ez zienau kasoik eiten. Hemen, berriz, harreman estuago zaukenau bertako ikasleiekin»

ZATOZ GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA


Eskaintza berezia!

Giroa modularra (338zm)

98 € 24 hilabetetan *





GAZTAINONDO, GEREZIZKO ETA HARITZEZKO ALTZARIAK



* Eskaintza berezi honetarako orri hau aurkeztu beharra dago.
fabrikako prezioetan zure etxera





udaberriko
ametsa